



## Mendigoizaleen urteroko hitzordua Aralarren

53. Mendigoizale Eguna antolatu du Nafarroako Mendi Federazioak igandean Aralarren, gurekin ez dauden mendizaleak oroitzeko, aspaldiko lagunak ikusteko eta urtea despeditzeko egun ederra / 14

## Bide eman euskarari!

Hezkuntzako lan deialdi publikoan bi hizkuntza ofizialak zerrenda berean sartzeko asmoari babes-manifestazioa / 5

**Etxarriarren lautik hiru euskalduna da: %74,85. Euskaldunen tasa mantentzen da / 2**

**Altsasuko auziagatik preso daudenei gutunak idazteko eskaera egin dute / 11**

**Aitziber elkartearen historia erakusten duen dokumentala bihar mustuko dute / 9**

**Etxarri Aranazko Txakurkrosa antolatu dute igandean kanpinean / 13**

**Los del Rayo, Haize Berriak eta Erkudengo Ama elkarrekin / 21**



# Etxarriarren lautik hiru euskalduna da

Euskaldunen tasa 2001etik 2017ra bere horretan mantendu da: % 74,85 da gaur egun. Ia euskaldunak etxarriarren % 15,95 dira eta, azkenik, erdaldunak % 9,2 dira. Aurten egin den soziolinguistika-inkestaren emaitzak dira aurrekoak

ETXARRI ARANATZ

Euskara ezagutza maila oso altuko herria da Etxarri Aranatz. Hala ere, etxarriarrek aitortu dute euskara gehiago hitz egiten dutela udaletxean edo osasun etxean, lagunartean edota etxean baino. Eneka Maiz alkateak esan zuenez, “garai batean eremu formalean euskara erabiltzeko lanketa egiten zen. Orain ikusten dugu fokua jarri beharko dugula familian eta lagunartean”.

Alkateak etxarriarrek euskararen normalizazioan arlo desberdinetan lan egitera deitu zituen. Udaleko Euskara Batzordea da horietako bat, ilbeltzean bilduko dena, eta hartan parte hartzeko gonbidapena luzatu zuen. Alazne Juaniz euskara zinegotziak aurreratu zuen eremu informalean, familian bereziki eragiteko asmoa dutela. Gazteekin ere aritu nahi dute. Hainbat ideia badituzte ilbeltzetik aurrera landuko dituztenak.

## Inkestaren zergatia

Soziolinguistika-inkesta Maialen Ijurra euskal filologoak egin du abendua eta lastaila artean. Ikasten zegoela praktika modura egin zuen ikerketa, Etxarri Aranazko Udalarekin elkarlanean. Lana egiterakoan Ijurrak, alde batetik Euskal Herriko



Izaskun Errazkin, Maialen Ijurra, Eneka Maiz eta Alazne Juaniz.

Unibertsitateko bere irakaslearen eta Udal Euskaldunen Mankomunitatearen aholkularitza izan du. Behin ikerketa eginda, Sakanako Mankomunitateko euskara teknikari Izaskun Errazkin ondorioak ateratzen lagundu du.

Ijurrak emaitzen eta ondorioen aurkezpenean gogorarazi zuen “herrian euskararen egoera nola zegoen ikusteko datu berrien beharra” zegoela. “Etxarrin genituen datuak oso zaharkituak zeuden” zehaztu zuen Errazkinek. Izan ere, Nafarroako Gobernuak

egindako azken Mapa Soziolinguistikoa 2011koa da. Baina han ez zuen herriz herriko daturik eman, 5.000 biztanletik gorako herrietakoak eta eskualdekoak soilik, hau da, Altsasukoak eta Sakanakoak. Beraz, Etxarri Aranazko euskarari buruzko azkeneko datu fidagarriak 2001ekoak dira. Orduetik herrian gauzak aldatu dira, esaterako, eskolan D ereduak da bakarra.

“Lan hori gabe guk ez dugu nondik ezagutu herritarren errealitatea” azaldu zuen Errazkinek. Gaineratu zuenez, sozio-

linguistika-inkestaren bidez “iritzi aitortuak jaso dira. Emaitzek joera erakusten dute”. Eta emaitzak eta ondorioak eman aurretik zehaztapen bat egin zuen: 2001eko datuak 5 urtetik gorakoei dagozkien eta aurten egindakoak 16 urte edo gehiago dituztenei. 16 urtez azpikoen artean euskara ezagutza oso handia dela nabarmendu zuen. Beraz, atera diren emaitzetan “aldea ez da esanguratsua”.

## Hizkuntza gaitasuna

Soziolinguistika-inkestak agerian utzi du Etxarri Aranatz euskararen ezagutza altua eta ulermena oso altua dela. % 74,85 euskalduna da, hau da euskara ongi hitz egin egiten du. 2001ean % 77,55 zen. Ia euskalduna, hau da, euskara ongi ulertu, baina zailtasunez hitz egiten dute etxarriarren % 15,95. 2001ean % 12,53 zen. Azkenik, etxarriar erdaldunak % 9,2 da. 2001ean, berriz, % 9,93.

Ezagutzan kopuruak mantendu badira, adin tartetean aldatetako egon dira. Gaur egun adin tarte guztietan gehiengo euskalduna da. Errazkinek azpimarratu zuen 34 urtetik beherakoetan % 90 gainditzen duela ezagutzak (16-24 urte % 90,3 eta 25-34 % 93,18). Gainera, 35 eta 49 adin tartean euskaldunen tasa herriko batz bestekoaren gainetik dago, % 81,61. Duela 16 urte adin tarte euskaldunenak 25 urtetik beherakoak (14 urtera arte % 87,9 eta 15,24 % 88,01 eta 65 urte edo gehiagokoen adin tarteak ziren % 81,97).

Bi neurketen arteko aldea da etxarriar heldu gazteenak euskaldundu egin direla. Eta horren garrantzia nabarmendu zuen Errazkinek: “adin tarte horretan euskararendako irabaziak izatea

garrantzitsua da, langileak, gurasoak... direlako. Gizarte bizi-tzan eragin handia duten adin tartetean euskaldun tasa asko egin du gora”.

Euskaldun guztiak elebidunak gara, baina hizkuntzak hitz egiteko erraztasunak ez dira berdinak. Horretaz galdetuta, Etxarriko euskaldun gehienek (% 43,44) diote bi hizkuntzetan ongi moldatzen direla; % 33,61 hobeki moldatzen da euskaraz eta beste % 22,95 gaztelaniaz hobe aritzen da. Adinari errepertuta, 34 urte bitarteko gehienak (% 50etik gora) euskaraz hobe moldatzen dira. Baina adina igo ahala, gehiago dira bi hizkuntzetan ongi edo gaztelaniaz hobeki moldatzen direnak. Euskara gaitasun erlatibo baxuena 50-64 urtekoek dute % 13,33, % 51,11 bietan eta % 35,56 gaztelaniaz hobeto.

## Haurtzaroko lehen hizkuntza eta etxeko erabilera

Etxarriar gehienek (% 73,93) etxean jaso dute euskara, baina gero eta gutxiago dira etxean euskara bakarrik jasotzen dutenak. 2001ean % 70,74 baziren, gaur egun % 52,15 dira. Ia 20 puntuko jaitziera. Etxean euskara eta gaztelania jasotzen dutenen arteko joera gorakoa da: 2001ean % 7,63 eta aurten % 21,78. Errazkinek azaldu duenez, “euskararen arnagune gehienetan errepikatu da hori”. Gero eta bikote misto gehiago egotea “arrazoaren zati bat da”.

**% 74,66K EUSKALKIA DAKI. BATZUK GALTZEN ARI DELA USTE DUTE ETA KONTRAKOA BESTEEK**

## Ostiralero SAIOA

**9:30ean**

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

**Astehenetik ostegunera**

**Metropoli forala**

9:00etatik 11:00etara

Abenduak 17. EHko Bertso Txapelketako finala zuzenean INFO7 Irratiaren bidez.

Gaurko gaiak:

- Etxarri Aranazko soziolinguistika-ikerketa
- Los del Rayo sinfonikoa kontzertuaz
- Eneko Lazkoz bertsolariarekin Txapelketa Nagusiaz

Esataria: Alfredo

107.3 FM  
www.guaixe.eus-en ON LINE



Etxarriarren % 52,15aren lehen hizkuntza euskara da.

Izan ere, bi gurasoak euskaldunak diren kasuetan (herritarren % 61,96) ez dago bermatuta haurtzaroko lehen hizkuntza euskara izatea (% 81,62k euskara bakarrik). Horretan ere adinaren arabera aldatetak daude. Bi gurasoak euskaldunak dituzten etxarriarren artean euskara bakarrik jaso dutenen tasa altuena 24 urtez beherakoa da (% 93,33) eta baxuena 50-64 urtekoena (% 72).

Etxeko erabileran ere beheko joera dago ere. Etxean euskaraz beti edo gehienetan hitz egiten zutenak 2001ean % 61,12 baziren, aurten 49,99 dira. Bi hizkuntzetan ari zirenak % 15,3 ziren 2001ean eta % 13,12 gaur egun. Azkenik, etxean gaztelaniaz beti edo gehienetan % 21,46 ziren 2001ean eta % 26,68 aurten. Beste hizkuntzetan aritzen direnen arteko aldea % 2,12 eta % 0,41 da.

Inkestatutako etxarriarrei lagunartean, lankideekin, ikaskideekin eta nola hitz egiten zuten galdetu zitzaizen eta erdia inguru beti euskaraz edo gehienetan aritzen dela erantzun du. 2016an egin zen Kale Erabileraren Neurketak etxarriarren kaleko elkarriketen % 57,8 euskaraz zirela zenbatu zituen. “Kontuan izanik inkestan 16 urtetik beherakoak ez direla sartu eta haurren presentziak euskararen erabilera handitzen duela, emaitzak zentzuzkoak dira”.

Soziolinguistika-inkestan erantzundakoaren arabera, administrazioan, hau da, udaletxean eta osasun etxean euskararen erabilera nabarmen igotzen da. “Badirudi azken urtetan udalak euskararen erabilera bultzatzeko egin duen lanak eragina izan duela. Etxarriar euskaldunek gune euskalduntzat dute administrazioa”.

### Euskalkia

16 urte edo gorako herritar euskaldunen eta ia euskaldunen % 74,66k etxarriera; % 16, 89k pixka bat dakite eta % 8,45ek ez dakite. Adin tarte guztietan baiezkoa nagusitzen da “nabarmen”. Hala ere, etxarriar euskaldunen eta ia euskaldunen % 41,89k uste du euskalkia galtzen ari dela. Beste % 40,88k kontrako pentsatzen du, hau da, ez dagoela galzorian.


### Euskararen sustapenez

Soziolinguistika-inkestan euskarari bultzada ematearen inguruan ere galdetu zaie etxarriarrei. Galdekaturak % 76,99rendako egokia da udalak euskara sustatzeko egin duen lana. Gainera, etxarriarren % 85,9 konforme dago administrazioan sartzeko euskara jakitea beharrezko izatearekin.


## Inkestan metodologia

Nafarroako Gobernuak erabiltzen duen galdetegi erreferentziatza hartu zuen lurrak. Hau da, hizkuntza gaitasunari, erabilerari eta euskara sustatzeari buruzko galderak egin zituen. Baina baita euskalkiari eta hikari eta nokari buruzkoak ere. Galdera horiek 16 urte edo gehiago dituzten 2.134 etxarriarretatik 326ri egin ziren. Sexu eta adin-tartean arabera banaketa egin, zozketa bidez aukeraketa egin eta telefono bidezko galdeketa egin ziren. % 95eko konfiantza-maila du.


### HIZKUNTZA-GAITASUNA ADIN-TALDEKA




### LEHEN-HIZKUNTZA



### ETXEKO ERABILERA



### EUSKALDUNAK ERRAZTASUNAREN ARABERA



Bakaikun egindako euskalki ikastaroa.

## Urdingo hizkera ikasteko ikastaroa prest

9 saioko ikastaroa da, ilbeltzaren 13an hasiko dena. Larunbatetan, 11:30etik 13:00etara

### SAKANA

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak, Urdingo Udalaren laguntzaz, Urdingo hizkeraren inguruko ikastaroa antolatuko du. Urdingo edo Burundako hizkera landu nahi duten herritarrei, bereziki, gazteei, eta interesa duen edonori dago zuzenduta ikastaroa. Antolatzaileek jakinarazi dutenez ikastaroa praktikoa izanen da, saio motz eta dinamikoekin. AEK-ko irakaslea Aitor Irigoi izanen da ikastaroa eman duena. Ilbeltzaren 13an hasiko da eta bederatzai saio iraupena izanen du. Urdingo euskara ikasteko saioak larunbatetan izanen dira, 11:30etik 13:00etara, Urdingo herriaren etxean.

Izena ostegun eguerdira arte eman daiteke. Horretarako, Mank-en Euskara Zerbitzura (948 464 840 edo euskara2@sakana-mank.eus) edo AEK-ra (948 468 258 edo sakana@ae.eus) jo daiteke. Doako ikastaroa da.

Irakasleak helduen euskalduntze irakaskuntzan eskarmentu handia du. Urdiaindarra da gainera. Bakaikun eta Altsasun euskalkia berritzeko ekimenak sustatuta saioak eta ikastaroak eman izan ditu, eta haietan parte-hartzaile nagusienak gazteak izan dira.



ASTEKOA

ANABEL ARRAIZA

## Adiorik ez

Zer da heriotza? Zergatik hiltzen gara gizakiak? Ez dira erantzun errazeko galderak. Ziur dakiguna ordea, behin jaiota hilko garela. Ezjakintasuna eta beldurra sor dezakeen kontua dugu heriotzarena eta hauen aurrean erlijioek indar handia hartu dute erantzun zehatz batzuk emanez.

Atzeraezina den kontua dela argi dago, heriotzak itzulerarik ez duela, alegia. Bizia bezala ezagutzen dugunaren amaiera dugu heriotza. Erlijio eta sinemen ezberdinek bestelakorik esan dezaketen arren, ez dut berpiztu den hildakorik ezagutu.

Beste kontu oso desberdin bat litzateke hil diren pertsonak gurekin jarraitzen dutela esaten dugunean. Sinestun izan edo ez, pertsona bat hiltzen denean, gurekin dagoela diogu harekin gogoratzen garen aldiro. Zer esanik ez dago, pertsona hori zurekin bizi izan denean. Fisikoki ez dago gure artean, ezin dugu ez ukitu ez laztandu; baina aurrerago aipatu dudan bizia bizitzen ari garenok hamaika une, era eta egoeratan "berpizten" dugu. Haren izena eta izana maiz dugu gure ahotan, gehienetan irri bati loturik gainera; gustura eta gogoz egiten ditugun keinuak.

Abenduak 15 ditu gaur. Etzi damu urteak beteko lituzke eta mahaiaren bueltan elkartuko ginen guztiok ospatzeko asmoarekin. Zazpi dira ospatu gabeko urte betetze egunak. Asko dira egun beltz hartatik hona pasa direnak. Beste batzuk joan eta baita ezagutuko ez dituzunak jaio ere. Min biziak eraman zintuen eta bizi mina geratu zen. Denborak arintzen du mina eta bizia da guri geratzen zaiguna. Adiorik ez aita.

## GUTUNA

### Sakanatik Parisa. Parisetik Bilbora

MIKEL MUNDIÑANO LARRAZA  
SAKANAKO SARE HERRITARRA

Hartu genezake perezaz, ilusio faltaz, edo eta atsekabez. Parisa? Lekutan dago! Zertara? Agian entzun izan dugu halakorik taberna iskineko elkarrizketa errazen batean. Beste modura ere irakur liteke pelikula: astebururo ehundaka senide eta lagunek egiten dutena ez dugu ba guk behingoagatik egingo! Eta abiatu gara Sakanatik.

Trenez gutxi batzuk, gehientsuenak autobusez. Irurtzundik batzuk, Lakuntzatik, Arakildik, Arbuzutik, Etxarritik, Urdaindik, Iturmenditik, Altsasutik, Olaztitik... Denak helburu bera. Orain presoak!

Luze bidaia. Hezurreta mina, autobusetako asentu puta horiek! Posturarik ezin hartu. Txoferrak ez du berogailua kontrolatzen.

Orain beroegi. Derrepente hotzegi. Hiru ordu eta erdiro, geldialdia. Atera taperrak, tortillak, urdaiazpikoa. Eta ardo zatoa, klaro! Hotz termometroa, izotzak txuritutako paisajea bezala, baina bero barrena. Eta bero bihotzak!

Ia 11 orduko bidaiaren ondoren Parisen gaude. Hantxe zain, Orleansko atea, Montparnasseko tren geltokia, Sena ibaia, urrutitik ikusten den Eiffel dorrea eta... Iritsi gara! Entzun gaitzala Parisek. Holakoetan euskal herritarro sartzen zaigun umiltasunezko harrotasun hori sentitzen dugu gure artean. Eta hala geunden. Euskal herritar bezala, senide, lagun eta solidario gisa. Presoak etxerako bidean jartzeko aukera gisa ulertuz Parisko mobilizazioa. Euskal preso eta iheslarien etxeratzeko bidean urratsak

egiteko unea heldu dela sinistuz.

Eta hala bueltatu gara. Indarberriturik. Ilusioz. Zerbait mugitzen ari denaren sentazioarekin. Zuhur, baina itxaropentsu. Zuhur, baina atzo baino indartsuago.

Herri aktibazioak puskatu ditzakeelako ezinezkoak diruditen paretak. Guztion ahalegin kolektiboak konponbidean jarri behar dituelako gatazkaren ondorioak eta azken batean elkarbizitza, giza eskubideen errespetua eta etorkizun baketsu eta iraunkor bat ezin direlako eraiki zauriak, ondorioak, preso eta iheslarien afera ez badira konponbidean jartzen.

Prest gaude! Sakanatik Parisa eta Paristik Bilbora. Urtarrilaren 13an beste zita garrantzitsu bat dugu Bilbon. Euskal preso eta iheslarien eskubideen alde baldin bazaude zatoz gurekin. Elkarrekin lortuko dugu!

## OBJEKTIBOTIK

### Mank-ek duela 25 urte hondakinak biltzeko aurreneko kamioia erosi zuen

1992ko azaroaren 9an jaso zuen Sakanako Mankomunitateak hondakin bilketarako erabiliko zuen aurreneko kamioia. 13 milioi pezeta (79.934,61 euro) balio zituen. Altsasuko Foru plazan jaso zuten Mank-eko buru Manolo Ijurak, Altsasuko alkateorde Jose Ramon Mintegik eta Emilio Boulandier zinegotziak. Han zen ere Toki Administrazioako zuzendari nagusi Jose Luis Arlaban. Kamioia jaso baina ez zen berehala lanean hasi matrikula eta aseguruia falta zituelako. Kamioi hark Altsasu eta Urdaingo hondakinak jaso zituen.



ARGAZKJABEAXXXXXX

**guaixe**  
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

**Koordinatzailea:**  
Goizeder Anton Iturralde  
fundazioa@guaixe.eus

**Diseinu zerbitzua:**  
GK, Ainhoa Etxeberria Pikabea  
gk@gkomunikazioa.eus

**Administrazioa:**  
Gixane Andueza Goikoetxea  
admin@guaixe.eus

**Kolaboratzaileak:**  
Iñaki Berastegi  
**Zuzentzailea:**  
Miren Alonso Razkin

**Lege gordailua:** NA-633/1995  
**Tirada:** 3.200

eta Eneida Carreño Mundiñano  
publi@guaixe.eus

**ARGITARATZAILEA:**  
Guaixe Fundazioa.  
Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
948 562 107  
618 882 675  
661 523 245

**Erredakzio burua:**

Alfredo Alvaro Igoa  
guaixe@guaixe.eus

**Erredakzioa:**  
Maider Betelu Ganboa  
kirolak@guaixe.eus

**Maketatzailea:**  
lune Trecet Obeso  
maketazioa@guaixe.eus

**Publizitatea:**

María Saez de Albeniz Bregaña  
publizitatea@guaixe.eus

LAGUNTZAILEAK

**Mank**  
s a k a n a

**BAZKIDEAK**



**Nafarroako Gobernua**  
**Gobierno de Navarra**

## Koldo Zuazorekin Sakanako euskara batuaz

Ilbeltzaren 24an eta 31n izanen dira, 15:00etatik 16:30era Mank-en Lakuntzako egoitzan

SAKANA

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzua Sakanako batuaren ezaugarriak ezagutzeko saio pare bat antolatu ditu, horien artean daude fonologia, morfologia, sintaxia eta lexikoa. Euskal filologian doktore den Koldo Zuazo hizkuntzalaria izanen da saioak emanen dituena. Berak esana da: “herri edo eskualde jakin bateko eskola, administrazio erakunde, hedabide, eta era guztietako ohar, mezu eta iragarkietan hitzunen gertuko hizkera erabiltzea litzateke zentzuzkoena”.

Horregatik, “bertako hitzunei zuzendutako ahozko eta izkribuzko jardunetan, bertako hitzak, esapideak eta bereizgarri fonologiko, morfologiko eta sintaktikoak kontuan hartzea” bultzatu asmoz antolatu du Euskara Zerbitzuak Sakana batua forma-

zio saioa. Ibarreko hizkuntza estandar horri buruzko saioak irakasleei, hezitzaileei eta interesa duen edonori zuzenduta dago. Izaskun Errazkin Beltza euskara teknikariak jakinarazi digunez, hizkuntzaren gaineko gogoeta egitea da ikastaroaren helburu nagusia.

### Datak eta izen ematea

Koldo Zuazok emanen duen Sakana batua prestakuntza saioak ilbeltzaren 24an eta 31n izanen dira, asteazkenarekin. 15:00etatik 16:30era izanen dira, Sakanako Mankomunitateak Lakuntzan duen egoitzan. Izen ematea ilbeltzaren 17ko 12:00ak arte egin daiteke, Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzura joz: 948 464 840 edo euskara2@sakana-mank.eus. Ikastaroan izena eman nahi dutenek ez dute ezer ordaindu beharko.



Manifestazioarekin bat egin dute ELAK, LABek, STEILASEk, Bilgune Feministak eta Sos Arrazakeriak besteak beste. KONTSEILUA

## Bide eman euskarari, berdintasunaren alde!

Lelo hori du Kontseiluak deitu duen manifestazioa. Nafarroako Gobernuak hezkuntzako lan deialdi publikoan bi hizkuntza ofizialak zerrenda berean sartzeko asmoari babesa emanen zaio Iruñean bihar, 12:00etan, autobus geltoki zaharrean



ARAKIL KULTURA

## Euskalkiaz Arakilen

Arakilgo Udalak larunbatean ospatu zuen Euskararen eguna. 40 bat pertsona izan ziren Hiriberriko kontzeju etxean. Lehenik, Ignazio Etxarren, Urritzolako azken euskaldun zaharra zena, omendu zuen udalak. Familiari oroigarria eman zion Alizia Izko zinegotziak. Ondoren Jose Luis Erdozia Mauleonek Arakilgo euskarari buruzko hitzaldia eman zuen.

SAKANA

Euskararen Gizarte Eragileen Kontseiluak nafarrak manifestaziora deitu ditu, urgentziaz. Paul Bilbao idazkari nagusiak esan duenez, “gizarte nafarraren kohesioaren eta normalizazioaren alde eta nafarren eskubideen berdintasunaren aldeko mobilizazioa izango da eta baita hainbat eragile sustatzen ari diren jarrera antisozialak salatzen ere”. Nafarroako Gobernuak hezkuntzako lan deialdietan zerrenda bakarra erabiltzeko erabakia “ausarta, egokia” da Bilbaoren iritziz. “Euskaldunok behar dugun aldaketaren erakusgarri da, zalantzarik gabe, euskaldunak zokoratu eta dis-

kriminatu dituen araudia balio-gabetzea”.

Erabaki hori bertan behera utzi nahian PSNk, premiazko prozedura erabiliz, lege bat proposatu du. Heldu den ostegunean eztabaidatuko da Nafarroako Parlamentuan. Sozialistek UPNren eta PPren babesa jaso dute, baita gobernuaren sostengatzen duen I-Erena ere. Bilbaok esan duenez, “zerrenda bakarraren aurka eginez, gizarte kohesioaren eta justizia sozialaren aurka ari dira. Gainera, lanerako eskubidea zalantzan jartzen ari dira, euskara ez jakiteko pribilegioari eutsi nahian, eta euskara jakitea zigortzen ari dira, alde guztietatik da antisoziala”.

Horregatik, Kontseilutik “gobernuaren erabaki aurreragarri ha babesteko deia” egin diete euskaltzaileei, “euskararen mesederako izateaz aparte, gizartearen normalizazioaren onerako baita” Bilbaok gaineratu duenez, “konplizitateak eraiki behar ditugu euskaraz bizi nahi dugunon artean, eta euskaldunon eskubideon aurka ari diren jarrera baldintzatzea lortu behar dugu, kaletik. Herritarrek ez dute ulertuko ezta onartuko ere berreskuratzea UPNk indarrean jarritako erabaki baztertzaila bat, aldaketa politikoa ahalbidetu zuten alderdi batzuen babesarekin”. Hainbatek babestu dute biharkoa.

 <b>EGOKI</b> VENTANAS PVC LEIHOAK www.ventanasegoki.com	KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA egoki@ventanasegoki.com	 Isolamendu nukleo indartsua	 Beirak lehorrean jarrita
			 Etxe pasiboetarako egokia
948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea			

# Laguntza-txakurrei buruzko gida kalean

Nafarroako Gobernuak argitaratu du Biak Bat elkartearen eta Nafarroako Kutxa fundazioaren laguntzarekin. Desgaitasuna edo gaixotasuna duten pertsonendako animalia horiek duten garrantziaz sentsibilizatu eta informatu nahi ditu herritarrak

## ALTSASU

Altsasun egoitza duen Biak Bat elkartearen ekimenez, Nafarroako Parlamentuak Asistentzia Txakurren Legea onartu zuen 2015eko ilbeltzaren 27an. Legeak ezgaitasunen bat duten pertsonen laguntza txakurrekin edonon ibili eta egoteko aukera ematen du. Baina Biak Bateko kideek sumatzen zuten jendarteak ez zuela txakur horiek egiten duten lanaren berri. Informazio hori zabaldu eta gizarteratzeko premia zegoela eta elkarteak, Nafarroako Kutxa fundazioak eta Gizarte Eskubideen Departamentuak bat egin eta gida aurkeztu zuten astelehenean.

*Ezagutu nazazu, laguntza-txakurra naiz* izenburua du gidak. Aste honetan aurkeztutako argitalpenak, besteak beste, txakurrek egiten duten laguntza lana, egiten dituzten lan motak, txakur horien erabiltzaileen bete beharrak eta hiritarrek bete beharrekoak eta egin beharrekoak jasotzen ditu. Gaur egun Nafarroako Gobernuak 14 txakur ditu erregistratuta: 11 gida-txakurra dira eta osasun alertako, zeinu txakur (entzumen ezgaitasuna dutenendako) eta zerbitzu txakur (mugitzeko zailtasunak dituen pertsona laguntzen du) bana daude.



Laguntza-txakurrei buruzko informazioa zabaldu eta gizarteratu nahi du gidak.

Trebatutako txakur horiek pertsona horien egunerokotasunean ezinbesteko oinarria dira. Ezgaitasuna edo gaixotasuna duten pertsonendako oinarri tekniko eta emozionala izanik, txakur horiek elkarbizitzaarako espazio publikoetan sartzea sustatu, erraztu eta errespetatu beharra dago. Hala diote gida egin dutenek, tartean Biak Bateko Josune Azpiroz. Gogorazi dute Pertsonen Autonomia eta Garapenerako Nafarroako Agentziak 2016ko abendutik plaka eta txartel baten

bidez aitortu eta kreditatzen dituela laguntza-txakurrak eta haiek erabiltzen dituzten pertsonak. Sarrera publikoko zerbitzu publiko eta pribatueta banatuko da gida.

## Biak Bat

Altsasuko irabazi asmorik ez duen erakunde horren egitekoa da pertsonen bizi kalitatea hobetzea. Horretarako, batetik, animaliek lagundutako terapiak egiten dituzte. Bestetik, laguntza-txakurrak trebatzen ditu Biak Batek.



Tasubinsako langileak partaide izan ziren ekitaldian.

## 30. urteurrenaren kontura ate irekien jardunaldia Tasubinsan

Lakuntzako tailerrak ezgaitasuna duten pertsonei, haien familiei, enpresei eta Sakanari ematen die zerbitzua

## LAKUNTZA

1987ko lastailaren 7an zabaldu zituen atea Tasubinsaren Lakuntzako egoitzak. Orduetik, Sakanan ezinbesteko baliabidea bihurtu da. Hiru hamarkadako ibilbidea ospatzeko ate irekien jardunaldia egin zuten asteartean eta bertan izan ziren hainbat langileren senideez aparte, Migel Laparra Nafarroako lehendakariordea, UPNko, PSNko eta EH Bilduko parlamentariak eta Lakuntzako, Arbizuko, Altsasuko eta Olatzagutiko alkateak.

Antolatutako ekitaldian Tasubinsako presidente Javier Goldarazek azaldu zuenez, egun lan eta okupazio tailerren 37 pertsonen lan egiten dute, haietatik % 92 ezgaitasunen bat dute. Denak ere muntaia txikiak eta poltsaratze lanak egiten dituzte Tasubinsako beste zentro batzuetako eta Mecalde, Aeroled eta Altsasuko Kooperatiba enpresa sakandarrendako ere. Goldarazek erakunde eta enpresa guztiek emandako laguntza eskertu zuen, eta Tasubinsaren errentagarritasun soziala nabarmendu zuen.

## Gabezia

Aldi berean, Gonzalezek erronka bat jarri zuen mahai gainean: zahartzea, bai langileena baita haien familiaena. Peio Razkin enkargatuak azaldu zigunez, "65 urterekin jubilatuta arte zerbitzu bat ematen zaie pertsona hauei, baina hortik aurrera ez dago ezer". Tutoretzapeko pisuak falta direla nabarmendu du eta

jubilatu den langile baten kasua eman digu, "Altsasuko adinduen etxean dago". Bestetik, Lakuntzako alkate Patxi Xabier Razkin nabarmendu zuen urteurrenaren protagonistak langileak eta profesionalak zirela. Tasubinsa "gizarte inklusiorako erreferentzia zentroa" bilakatu dela nabarmendu zuen. Eta nabarmendu zuen ziuurren aurri egoeran bukatuko zuen eraikin bat Tasubinsari esker salbatu egin zela, "herriek arazo bat zutelako". Udalak elkarlanerako prest segituko dutela azpimarratu zuen.

Gizarte Zerbitzuetako lehendakari-orde Migel Laparrak Tasubinsak lortutakoa eta egin duen aurrerapena nabarmendu zituen. Bide berean sakontzen segitzera animatu zuen Tasubinsa: esku hartzean berritzen segitzeko; pertsonen gero eta zentratuagoak dauden ikuspegiak txertatzen; ezgaitasuna duten pertsonen gizarte eta lan integrazioan inbertitzen segitzeko. Tasubinsak zerbitzuak eskualdeetara eramatea duen garrantzia nabarmendu zuen Laparrak, "ez soilik zerbitzua erabiltzaileei gerturatzeagatik, populazioa sentsibilizatzeko eta pertsonak ikustarazteko duen garrantziagatik baizik". Nafarroako Gobernuak ordezkaririk, Migel Laparrak, foru administrazioak gizarte enplegu zentroekin duen konpromisoa berretsi zuen, datuekin azpimarratuz: 2015etik aurrekontua alor horretarako %27 handitu da.

## Ur, txakur sudur finena

Biak Bateko Josu Mendezek Ur da txakur sustantzia-detektatzaileen Espainiako lehiaketako irabazlea. Asteburuan Salamancan jokatu zen eta 30 txakurrek parte hartu zuten, herritarrenak eta poliziaenak. Sustantzia oso desberdinak atzemateko txakurrek duten gaitasuna neurtu zen. Beti ere, euren gida edo trebatzaileekin aritu ziren



Josu Mendez eta Ur border collie txakurra podiumaren gorenean. UTZITAKOIA

gurea, denona

euskara

de todos y todas



Leizarango Autobia Arakilen. ARTXIBOA

## Larrazpilgo zubi bat konponduta, orain bestea

Leizarango Autobiako (A-15) zubia konpontzeko autobiararen Sakanarako norabidea itxi dute Latasan

ARAKIL

Irailaren 11n hasi ziren Leizarango Autobiako (A-15) Larrazpilgo zubiak konpontzeko lanak. Lehenik, Lekunberriko norabidean dagoen zubia konpondu dute. Eta astelehenean bigarren zubiaren txanda hasi zen, trafikoa Sakanara ekartzen duena. Horregatik, Latasatik Sakanarako autobiarako sarbidea moztu egin dute. Gidariekin NA-1300 errepidetik Irurtzunerantz jo beharko dute.

Larrazpilgo bigarren zubiaren konponketa lanak otsailerako despeditu nahi dituzte. Bitarte horretan trafikoa Lekunberri daraman bidera desbideratu da eta zentzu bakoitzean norabide bakarrek erraila dago zabalik. Lanegatik trafikoaren abiadura moteldu egin beharko da, toki batzuetan 40 km ordukoa izanen da eta besteetan, berriz, 60 km ordukoa.

Lanak Acciona Construcción SA enpresak egiten ari da eta horien truke Nafarroako Gobernuak 1.239.367,98 euro (BEZ barne) pagatuko dizkio, lizitazio prezioa baino %25,02 merkeago eman ziren lanak. Larrazpilgo bi zubiak Arakilgo mugan daude, Irurtzun eta Latasa udalerrien artean, A-15 autobiararen 116+100 km puntuan. Bi zubi independente dira, bana zirkulazioaren noranzkoko, eta Larraun ibaia-aren eta NA-1300 errepidearen gainera doaz. 1992. urtean eraiki zituzten. 2008an konturatu ziren zubia konpondu eta indartzeko beharraz.

**LANAK OTSAILERAKO DESPEDITUKO DITUZTE. BITARTEAN LEKUNBERRIRAKO NORABIDE BAKARRA**

## Gobernuak udal haur eskolako diru-laguntza aurreratu du

Orain % 80 jaso dute eta otsailean beste % 20. Haur eskolak mantentzeko udalen ahalegina arindu nahi du

UHARTE ARAKIL

Nafarroako Gobernuak gaurko bileran erabaki du 429.977,22 euroko ordainketa egitea 12 udali. Ikasturte honetako haur eskolako Haur Hezkuntzako lehen zikloko kudeaketagatik

emanen ditu diru-laguntzak foru administrazioak. Hori horrela izateko Hezkuntza Departamentuak eta udalek dagokion hitzarmena sinatu beharko dute. Horien artean dago Uharthe Arakilgoa, 33.077 euro jasoko dituen.



Huellas de Altsasuren manifestaziorako deialdi bat. ARTXIBOA

## Txakur jabeendako bandoa zabaldu du udalak

Jaso gabeko txakurren kakek eta animaliak solte egoteak altsasuarren kezak eragin dituzte

ALTSASU

“Altsasuarren eta txakurren arteko bizikidetzak bermatzen duten oinarriko arauak errespetatzea da” ordenantzan jasota dagoena betetzea. Hala azaldu du bando bidez Javier Ollo Martinez alkateak. Animaliak edukitzearen gainera 2006ko ordenantzako bi artikulua nabarmendu du alkateak. Lehenik, 20.a, zeinetan esaten den: “Altsasuko herriguneko eremu publiko guztian txakurrak ibiltzeko katez edo uhalez loturik egon beharko dute, kontrolatzeko gauza den norbaitek gidaturik. Animaliak josta daitezten, aipatu eremuetatik aske ibiltzea onartuko da, baina beti beharko dute arduradunen bat inguruan haiek kontrolatuko dituen.”

Bestetik, ordenantzako beste atal bat gogorarazten du bandoak: “txakurrekin ibiltzen diren pertsonen galarazi behar dute haiek

kaka egitea espaloi, galtzada, parterre, berdegune eta eremu publikoko nahiz pribatuko beste edozein elementuren gainean, herritarrek ibiltzeko edo jolasteko baitira. Txakurra daramana behartuta dago animaliak aipatu tokietan utzitako gorozkiak hartu eta eramatera”.

Udaletik gogorarazi da aurreko bi puntuak ez betetzea hutsegite arina dela eta, horregatik, 60 eta 150 euro arteko isuna jarri daitekeela. Hutsegite arin bat errepikatzen bada, arauhauste larri bat litzateke eta horrek 150 eta 1.500 euro arteko isunak dauzka.

Bestetik, oposizio-lehiaketa murriztuaren bidez, Altsasuko Udalak bi langile kontratatuko ditu zerbitzu anitzetako lantaldean aritzeko. Bata igeltsero edo kibusgilea izanen da eta bestea iturgina. Euskara jakitea merezimendua izanen da.

## Txiribulo haur eskolarendako gobernuaren laguntza

0 eta 3 urte arteko haur hezkuntzako zentroetan hobekuntzak egiteko Hezkuntza Departamentuak 13 udali 93.754 euroko diru-laguntza eman die. Baziren sei urte foru administrazioak halako deialdirik egiten ez zuena eta dirua jasoko dutenen artean Altsasuko Udala sartu du. Txiribulo haur eskolako galdara gela egokitzeko 8.359,95 euroko (BEZa kanpo) inbertsioa egin zuen udalak eta departamentuak % 65eko diru-laguntza eman dio, 5.433,97.

Udalak haur eskolako beste bi lanetarako eskatu zituen laguntzak. Alde batetik, patioaren azalera handitzeko. Eskaera hori erreserban utzi du departamentuak. Beste udalen batek bere inbertsioa eginen ez balu Altsasukoak 9.676,11 euroko (BEZ kanpo) lanegatik 6.289,47 euro jasoko lituzke. Azkenik, Txiribuloko lehen solairuko fatxada-ko leihoak kendu, tartekak itxi eta fatxada pintatzeagatik egingandako eskaera ez diote onartu.

## Altsasuko Udal Musika eskola irakasle bila

Altsasuko Musika Eskolak jakinarazi du akordeoi eta trikitixa irakaslea kontratatuko duela eta, horretarako, hautaketa prozesua zabaldu duela. Ordezkapen bat egiteko lanaldi partzialeko kontratu bat izango da. Lanpostu horretan interesa duten pertsonen euren curriculum aurkezteko epea abenduaren 28ko 12:00ak arte dute.

Gainontzeko udalen moduan diru-laguntza osoaren % 80 da kopuru hori. Gainontzeko % 20 ilbeltzean edo otsailean.

Orain arte haur eskolak zituzten udalek diru-laguntza apirilean edo maiatzean jasotzen zuten. Horrek udalek haur eskolen finantzaziorako dirua aurreratzea behartzen zuen. Hezkuntza eta Toki Administrazio Departamentuek Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin hartutako konpromisoa betetzea dakar.



Haurrak eskolan. ARTXIBOA

## Iñigo Aritza ikastolak lan poltsa osatuko du heldu den astean

Iñigo Aritza ikastolako zuzendaritzak jakinarazi duenez, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan irakasle izateko lan poltsak zabalduko ditu. Haien helburua da ikasturtean zehar sortu daitezkeen beharrei erantzutea. Interesa dutenek abenduaren 18tik 22ra eman dezakete izena [www.inigoaritzas.com](http://www.inigoaritzas.com) orrian egonen den inprimakia betetzen.





Bazkide egunean aurreneko bazkideei omenaldia egin zieten lastailaren 7an. ARTXIBOA

# Aitziber elkartearen historia dokumentalean

Mende erdi bete du elkarteak eta urteurren ospakizunen barruan grabatu dute dokumentala, larunbatean, 20:00etan, elizan mustuko dena. Ikus-entzunezko lanak Urdaingo gazte haiek halako ekimenean nola sartu ziren azalduko du

## URDIAN

Ez dira beti 50 urte egiten eta, horregatik, Aitziber elkarteak urteurrena behar bezala ospatzea erabaki zuen. Aitziber egunean, agorrilaren 15ean, urteurren brindisa egin zuten eta 50. urteurreneko kamisetak mustu zituzten elkarteko kideek. Lastailaren 7an, berriz, bazkide egunaren txanda izan zen. Egun osoko egitarauan ekitaldi berezia sortzaileei egindako omenaldia izan zen. Baina urteurrenarekin batera, orain, dokumentala eta argazki erakusketa heldu da.

Ordu bateko iraupena duen dokumentala prestatu dute. Hasiera batean ekitaldi batzordea-

ren ideia izan zen 50 urteetako ibilaldia laburtzea. Baina ideia sortu bezain pronto, zuzendaritza lanak egin dituen Maite Aldazek, garbi ikusi zuen Aitziber elkartearen lehenengo urteetan zentratzea interesgarria izanen zela, jakin-mina asetzeko: 1967an urdiaindarrak zerk bultzatu zituen halako ekimen bat sortzera?

Erantzuna Jaime Agirrek, Asun Aldazek, Agripina Zufiaurrek, Josetxo Aldazek, Encarna Zelaiak, Jesus Mari Zufiaurrek, Antonio Goikoetxeak, Miguel Angel Sagasetak, Coro Ostizak, Juan Jose Anduezak, Fernando Goikoetxeak, Juana Rosa Ariztizabalek, Koro Albizturrek,

Alicia Zufiaurrek, Patxi Galarzak, Eloy Zufiaurrek, Sebastian Floresek, Angel Mari Lakuntzak (Peque) eta Jesus Senarrek eman dute.

## Talde zabala

Dokumentala auzolanean egin dute Aitziber elkartekoek. Gidoia eta zuzendaritza Maite Aldazen eta Arantza Floresen ardura izan da. Enara Insaustik grabatu eta editatu ditu irudiak, Xabier Asa eta Oscar Corrozarekin batera. Off-eko ahotsak Maria Floresek eta Txomin Uhartek jarri dituzte. Azken horiek Imanol Goikoetxeak grabatu zituen. Goikoetxea berarena da dokumentalean agertzen den abestia. Paula Olaz

iruindarraren musikaz arduratu dena. Azpitoluak, berriz, Oneka Alvarezek. Produkzio lana Puy Zufiaurrek, Maite Zufiaurrek, Amaia Zubiriak, Jaione Zubiriak eta Naiara Etxeberrriak egin dituzte. Herriko enpresa gehienek eman dute dokumentalerako diru-laguntza.

Dokumentazio lanean ari zirela "altxor" bat opatu zuten: 1967an elkarte sortu berritan erabiltzen hasi ziren akta liburua. Eskuz idatzia dago, euskara hutsean.

## Erakusketa elkartean ikusgai

Dokumentalaren produkzio lanean aritu diren elkarteko kideek erakusketa prestatu dute. Ikus-entzunezkoa egiteko erabilitako hainbat dokumentu, urdiaindarrak utzitako argazkiak, prentsa artikulua eta jantzi erakutsiko dira. Guztiak ere, "Aitziber elkartearen sorrerako urteetako lanaren lekuko direnak". Elkarte ganbaran izanen da ikusgai, domekatik ilbeltzaren 6ra arte. Erakusketa dagoen bitartean elkarteko taberna publiko guztiari irekita egonen da abenduaren 17an, 24an eta 31n, 12:00etatik 14:00etara, eta abenduaren 23an, 30ean eta ilbeltzaren 6an, Errege egunean, 18:00etatik 21:00etara.



Martin Larraza. NUP

## Larrazaren ikerketa ibilbideari aitortza

### ARBIZU

Nafarroako Unibertsitate Publikoak 2017ko Ikerketa Sariak banatu zituen asteartean. Alfonso Carlosena errektorea izan zen ekitaldiaren burua eta haren eskutik Martin Larraza Kintanak bere ikerketa-ibilbide osoaren aitortza jaso zuen. Giza eta Gizarte Zientzien, Zientzia Juridikoan eta Ekonomia Zientzien arloei dagokien saria jaso zuen arbizuarrak. Larraza Nafarroako Unibertsitate Publikoan Enpresen Kudeaketako Saileko irakaslea da.

Konfiantzazko aseguradora orokorra!

**MAPFRE**

ASI SON LOS PRECIOS DEL SEGURO DE AUTOS HORRELAKOAK DIRA AUTO ASEGIARIAREN PREZIOAK

TI SEGURO DE AUTOS POR AUTO ASEGIURUA

GARANTIA DE POR VIDA BETIKO BERMEA

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM

948 563 354  
jimazpr@mapfre.com  
San Juan 48 · ALTSASU

**Kaixo**  
Kafetegia - Jantxea

KAFETEGIA - RESTAURANTE • KAIKO • BAR-CAFETERIA

GARCIA XIMENEZ 20-22  
948.46.91.24 ALTSASU  
www.restaurantekaixo.com

Ogiaren artisaauk

**PORTUKO** okindegia

Gabonetarako zure gutiziaz dauzkagu

ETXARRI ARANATZ: 948 460 988  
ALTSASU: Denda: 948 563 822 • Lantegia: 948 467 153



Larreñondoko aparkalekutik plazara oinez joatea bi minutu kostatzen da.

## Urte berriak oinezkoendako bi espazio berri ekarriko ditu

Dagoeneko Larreñondoko autoendako aparkalekua erabilgarri dago. 80 auto baino gehiago sartzen dira

### ETXARRI ARANATZ

Eneka Maiz alkateak jakinarazi duenez, urte berriarekin batera oinezkoendako bi espazio izanen ditu Etxarri Aranatzek. Horrek kaleen norabidean ere aldaketak ekarriko ditu. Oinezkoendako espazio horietako bat Iturri eder inguruan gaur egun autoak aparkatzen duten espazio guztia da. Horrek bi eragin ditu autoen trafikorako. Batetik, medikuaren etxea edo musika eskola izan zenaren eta Iraize tabernaren arteko kalea trafikorendako moztuko da. Bestetik, Burundabide kaletik, errepedetik, sartzen direnak Larrañeta kalean aurrera bakarrik joateko aukera izanen dute eta behin frontoia pasata ezkerretara joateko aukera besterik ez da izanen. Ikastola hartzen duen etxadian beti ezkerrean biratzeko aukera izanen da.

Beste oinezkoendako beste espazioa udaletxe ondoko galtzadarriena da. Baina Larrañeta kalearen zati bat ere hartzen du, botika pareraino.

Pertsona helduendako, haurren gurdienendako eta mugikortasun arazoak dituztenendako galtzadarriak traba direnez udala horiek ordezkatzeko aztertzen ari da. Hala ere, udaletxetik Bizente Bakaikoaren etxeraino espazio bat utziko da autoak Ugalde kalera sartzeko.

Alkateak gaineratu duenez, udaletxearen eta Derry tabernaren artean dauden zebrabideen arteko tartea ere nolabait ordenatu behar litzatekeela uste dute udalean, "oinezkoen eta autoen arteko nahasmenua dagoelako eta arrisku egoerak sortzen direlako". Oinezkoen espazioak sortzeko lehen fasean udalak 25.000 euro inbertituko ditu. Eta beste 25.000 euro aurrerago espazio horietan hobekuntzak egiteko.

Mugikortasunari eragiten dioten neurri horiek plaza hobetzeko otsailan udalak abiatutako parte hartze prozesuaren baitan hartu ziren. Ondoren plazako estalopeari helduko zaio.

## IRAGARKI SAILKATUAK

### HIGIEZINAK

**Estabilizimendu publikoa saltzen da Uhartetarako.** Tel 650 153 240.

**Lakuntzan gela bateko apartamentua alokatzen dugu, herriko etxe batean dago.** Tel 679 50 54 64 Itzi.

### OHARRAK

**Odol-emaileak.** Uhartetarako: Abenduak 17, 17:00-20:30

**Enplegarritasuna hobetzeko biterkeritza eta aholkularitza zerbitzua.** Sakanako Enpresari Elkarteak langabeen eta lan bila dabiltzanendako duen aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

**Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina.** Informazio gehiago: [www.euskonews.com/laguntza](http://www.euskonews.com/laguntza), [euskonews@euskonews.com](mailto:euskonews@euskonews.com), 943 32 22 94

**Autoenplegurako laguntza.** Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jardueraren azterketak. Argibide gehiago: 948 56 70 10, [sakana@cederna.es](mailto:sakana@cederna.es) edo [sakana.admon@cederna.es](mailto:sakana.admon@cederna.es)

**GoiEner Iruñean.** Landarek utzitako lekuan, Joaquin Beunza, 9 behea, Errotxapean, hilabeteko lehenengo eta hirugarren asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa jasotzera, zalantzak argitzera, ekarpenak egitera...

**Volkswagengoko langileendako deia.** Iruñeko lantegiak zure elkartasun proiektua deialdia bigarren urtez aurkeztu du. Bocalan Biak Bat fundazioak "Lau zango milaka irri" programa aurkeztu du laguntza deialdi horretarako. Proiektu

tua aurkeztu duten Sakanako elkarte bakarra dira. Fundazioetik Volkswageneko langileei 24 proiektuaren aldeko botoa ematera animatu dituzte.

**Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde.** Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixa 2100 2173 87 0200346965

**Euskaldun bat euro bat.** Nafarroako erresumakoa izan zen Baigorriko Etxauria gaztelua euskaldunen zat erreskuratu nahi da. Nafarroaren eta euskaldun guztien etxea izan dadin. Gure kultura, ekonomia, historia eta mugaz gaindiko harremanak antzinarazteko gunea bizia. Informazioa [www.euskaldunbateurobat.com](http://www.euskaldunbateurobat.com)

**Gazteei jarritako isunak ordaintzeko.** Euskal preso eta iheslarietako aldeko abenduaren 30 ekinetik aurrera parte hartu zuten gazte sakandarrek 6000 euroko isuna jaso dute. Mozal legearen aplikazio horri elkartasunetik erantzun kolektiboa emateko dinamika martxan jarri dute gazteek. Diru ekarpenak egiteko kontu korrontea zabaldu dute. ES67 3008 0014 2133 8075 1119

### GALDUTAKOAK

**Patinete bat galduta Altsasun (Txikiokan).**

**Azaroaren 26an scooter bat (oxelo) Altsasun galduta zen Txikiokan inguruan.** Edozeinek aurkituko balu 666 057 858 telefonora dei dezakezu. Eskerririk asko.

[www.iragarkilaburak.com](http://www.iragarkilaburak.com)

## ESKELA



## Patxi Barandiaran Lopez de Munain

(Olga Guaixeko banatzailearen senarra)

Besarkada bat familiari.



Guaixe fundazioa

## JAIOTZAK

- **Rut Nerea Cristurean**, azaroaren 21ean Altsasun
- **Julen Mendoza Obregozo**, azaroaren 21ean Altsasun
- **Analia Marroquin Morales**, azaroaren 29an Altsasun
- **Enaitz Ganuza Asurmendi**, abenduaren 2an Altsasun
- **Amira Dafoufi Dira**, abenduaren 6an Irurtzun
- **Daniel Imaz Riveiro**, abenduaren 6an Lakuntzan
- **Lur Berastegi Seco**, abenduaren 10ean Altsasun

## EZKONTZAK

- **Tomas Bravo Limonta eta Nuria Vilches Etxeberria**, abenduaren 9an Irurtzun

## HERIOTZAK

- **Andresa Goikoetxea Galarza**, azaroaren 29an Altsasun
- **Maria Elisa Etxarri Ibañez**, abenduaren 1ean Olaztin
- **Eduardo Goikoetxea Arbizu**, abenduaren 1ean Iturmendin
- **Antonio Galparsoro Galparsoro**, abenduaren 2an Olaztin
- **Lorenza Urkia Arratibel**, abenduaren 3an Arbizu
- **Francisco Aiestaran Erdozia**, abenduaren 3an Bakaikun
- **Patxi Barandiaran Lopez de Munain**, abenduaren 2an Olaztin
- **Maria Isabel Sayas Mendia**, abenduaren 9an Altsasun
- **Maria Juana Mugika Arangiz**, abenduaren 11n Altsasun
- **Juan Agirre Asurmendi**, abenduaren 13an Iturmendin

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.



# SUWOW

## SUV TRINKO BERRIA

### CITROËN C3 AIRCROSS

Leku gehiago, modularitate gehiago  
#Aukeragehiago

520 l. maletategia  
Modularitate marka  
Citroën Advanced Comfort  
Atzeko eserleku irristakorrak  
Gidatzeko 12 laguntza  
Pertsonalizaziorako 85 aukera  
Jetsierako kontrolerako Grip kontrola



**130€/HILABETEKO**  
47 kouta. Sarrera 3.516,93€  
TAE: 7,96%. Azken kuota 8.079,67€  
Eskaintza 2017/11/30 arte

**[4] URTE**  
MANTENIMEDUA BARNE

citroen.es

CITROËN nahia du TOTAL KONTSUMO MIXTOA (L/100KM) CO2 ISURIA (G/KM): CITROËN C3 AIRCROSS: 4,0 – 5,6 / 104 – 126 (1) PVP Penintsula eta Balear irletan aholkatutako prezioa C3 Aircross PureTech 82 Feel 14.725€ (zergak, garrarioa eta eskaintza barne), PSA Financial Services Spain, EFC, finantzatzeko bezero partikularrentzako eta 48 hilabeteko iraunkortasunarekin. Finantzial onarpenari lotuta. 48 hilabeteko kontrato bateko iraupenerako eta 50.000km-erako. Irekiera gastuekin finantzaturako kapitala: 11.650,79€. Irekiera gastuak: 442,72€. TIN: 6,4%. Zor den zenbatekoa: 14.189,67€. Epeka prezioa: 17.706,6€. Kontratoaren amaieran ibilgailua itzuli edo azken kuota berfinantziatu aukeratu da. Prezioak Idealdrive zerbitzuaren kontratazioa barne du, eskura ordaindutako 1.025€-ren truke (erabilera arruntetan markak prekonizatutako errebisioak, piezak desgaztea salbu eta lan-orduak barne), 48 hilabetetan edo 50.000km (gertatzen den lehenbizikoa). Estaldurak/ eskusioak kontsultatu [www.citroen.es-en](http://www.citroen.es-en) edo kontzesionarioan. Finantzatu ez duen bezeroarentzako prezioa: 16.225€. eskaintza 2017/11/30 arte. Ikusgai dagoena: C3 Aircross Shine berria 17.600€tik hasita. Bertsioen arabera ekipamendu erabilgarriak. Automóviles Citroën España, S.A. C/Dr. Esquerdo, 62 – 28007 Madrid. CIF: A-82844473

AUTO TALLERES SAN MIGUEL S.A. • ALTSASU • 948 562 261 • IRURTZUN • 948 600 657 • [www.autsanmiguel.com](http://www.autsanmiguel.com)



Abenduaren 1ean egindako kontzentrazioa. UTZITAKOA

## CCOOREndako zigor eskaerak "desproporzioa" dira

Sindikatuaren iritziz "Guardia Civilen kontrako erasoak ohiko bidetik epaitu beharko litzateke"

### ALTSASU

Altsasuko auziaren inguruko iritzia jakinarazi du CCOO gaur: "erasoak terrorismo gisa ez epaitzea defendatzen dugu; fiskaltzaren eskaera desproporzio juridikoa da, baita Altsasuko gazte batzuk urte bat baino gehiago espetxean egotea ere". Sindikatuaren iritziz, "argi dago gertatutakoa ez dela tabernako liskar soila, ezta gaizki moldatzen diren pertsonen arteko borroka ere". CCOO "biolentziaren erabilera legitimazioa kentzeko eta oraindik existitzen den gorroto kultura lurperatzeko" deia egin du, gaineratuz, "lan jakin bat izatea edo desberdin pentsatzea inoiz ez luke eraso fisiko baten arrazoi izan beharko".

Sindikatuak gaineratu duenez, "hori guztia aitortzeak, ezin du eragotzi justiziaren jarduna desproporzionatutzat jotzea, zenbait pertsonen urte bat baino

gehiagoan konpondu ezin den kaltea sortu dielako eta mendekuzko justizia ezartzen denez, ez duelako sakoneko arazoa konpontzen". Horregatik, CCOO gertaerako epaitegi arruntetan epaitu daitezela eskatu du.

### Askatasuna ukatua

Adurren eta Jokinen abokatuak haien baldintzapeko askatasuna eskatu zuen epaiaren data jakin bezain laster. Epaietarako bost hilabete falta direla, espetxean 13 hilabete daramatela, familia eta gizarte errotzeagatik ihes egiteko edo gertaera errepikatze arriskurik ez dagoela nabarmendu zuen.

Baina eskaera atzera bota zuten epaileek. Argudiatu dutenez, "delituaren natura eta eskatutako zigorraren larritasuna ihes egiteko arriskua dago". Aske dauden auzipetuekin ezin omen da bien egoera konparatu.

# Gazte presoek gutunak idazteko deia egin dute

Gaur 397 egun egiten dituzte preso Altsasuko auziagatik espetxeratutakoak. Atzokoan haiei gutunak idazteko eskatu zuten, horretarako paperak eta helbideak zabalduko dituzte. "Polizia-muntaiaren" zifrak ere eman zituzten

### ALTSASU

Hilaren 14a izanik atzo Altsasuko auzia salatzen kontzentrazioa egin zen plazan. Altsasuko Aske herri asanbladatik akaberan esan zuten, Adurri, Jokini eta Oihani "gure elkartasuna adieraziko diegu, berriro ere, eskutitzak idatziz". Jakinarazi zuten, atzotik hilaren 24ra arte tabernetan orriak eta helbideak utziko dituzte. Idaztitako gutun guztiak abenduaren 24ean, 17:00etan, jasoko dituzte Foru plazan. "Jakina, helbideak gorde eta nahi duzuen gutzietan idaztera" animatu zuten.

Ferietako esperientzia arrakastatsuen ondoren etorri da Altsasuko Aske herri asanbladaren gutunak idazteko eskaera berria. Orduan 500 gutun jaso eta bidali ziren espetxetara. "Horrek animo eta bultzada eman die, nahi eta Adurrek orain dela gutxi jaso dituen, kartzela-zigorraren krudelkeriaren beste adibide bat".



Ferietan presoek gutunak idazten.

### Datuak

Atzokoan "polizia-muntaiak" eman dituen zifrak salatu zituzten. Joan den urteko azarotik preso senide eta lagunek 208.662 km egin dituzte espetxetara joan etorrietan. Kasik munduari zaz-

pi buelta dira horiek. Hilero ibilitako 16.050 km dira. Senideek 55.552 euroko gastuak izan dituzte orain arte, hilero 4.273.

Fiskaltzak zortzi auzipetuek 375 urte eskatu dituzte guztira. Horri 160 urteko gaitasun gabetzea eta 40 urteko zaintzapeko askatasuna gehitu behar zaie. Auzipetutako hiruk gaur 397 egun egin dituzte preso. Dagoeneko Espainiako Auzitegi Nazionalari 48.000 euro ordaindu dizkiote ustezko ardurengatik.

Elkartasunaren zifrak ere eman zituzten: 100 bat kontzentrazio, 8 manifestazio, hileko 14. egunetan 13 mobilizazio, dozenaka kirol eta kultur ekimen. Guztira 150 bat mobilizazio zenbatu dituzte. Horiek milaka lagun atera dituzte kalera, "mugarik gabeko elkartasuna" izan dela nabarmendu zuten. Auzipetuei elkartasuna azaltzen ari zirenek 27 isun jaso dituzte, dirutan 3.800 euro direnak.



**ZURE  
NEURRIRA  
EGINDAKO  
BIDAIK**

Apaolaza Autobusak  
**943.72.48.10**

info@autobusesapaolaza.com  
www.autobusesapaolaza.com



*Enkarguak  
egiten ditugu!*

*Zuk jori mahaia eta guk jana!*

PAZKO GAUEAN ETA URTE ZAHARREAN MENU BEREZIAK  
PRESTATZEN DITUGU, 21:00AK ARTE IREKITA

*Enpresendako prestaketa zerbitzuak*

· Fernando Urkia kalea, 29 · Arbizu ·

· 686 654 382 · 666 616 303 · 687 371 939 ·



Urbanizazioko makinak Akerruntza eta Berian kaleetan aurrera atzera dabilta.

## Eskola berrirako urbanizazio lanak ilbeltzerako despedituta

Eskolako proiektuak 169.485 euro balio ditu, eraikina jasotzeak, berriz, 3,2 milioi euro

### ARBIZU

Berian kalea luzatzeko lanetan dabilta makinak azken asteetan. Arbizuko Udalak bulkatutako lan hori ezinbestekoa da eskola berria jartzeko. Han, 3.299,27 metro karratuko partzela batean herriko eskola berria kokatuko baita. Eraikin berriak Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako maila guztiak hartuko ditu, izan ere, gaur egun LHko 4. maila bukatu eta gero Etxarri Aranazko eskolara baitoaz.

Karmele Maraño Chasco alkateak jakinarazi digunez, urbanizazio lanek 90.000 euro inguruko aurrekontua dute. Dirutza horren % 85 Toki Inbertsionarako Planeko diru-laguntzarekin ordainduko du udalak. Marañoek jakinarazi digunez, lanak ilbeltzerako despedituko dituzte. Eta orduan hasi beharoko lirarteke eskolako eraikina jasotzeko lanak, baina Hezkun-

tza Departamentuak proiektua eman ez duenez, zaila ikusten du alkateak.

Arbizuko eskolako proiektuaren erredakziorako eta eskola publikoaren eraikuntza lanen zuzendaritza kontratatzeko 169.485 euro bideratuko ditu Hezkuntza Depramentuak. Eskola berria heldu den ikasturtean mustuko litzateke eta 3,2 milioi euro inguruko kostua izanen du.

### Erretiroa

Angel M<sup>a</sup> Lag Amirola udal idazkaria hilaren 22an jubilatuko da. Bai udalaren bai Nafarroako Gobernuaren lan-poltsetan zudenek plaza hartzeari uko egin diotenez, Arbizuko Udalak premiazko deialdia egin du idazkari postua bete ahal izateko. Hamaika hautagaik eman dute izena. Guztiek probak asteartearen eginen dute.

izendapeneko presidente Jose Mari Ustarroz eta Urbasa-Andiako Larreen Batzordeko buru Javier Saez de Jauregi.

Publikoarendako gaztarik onena Eulateko Victoriano Agirre Ñigezena izan zen. Hirugarrena izan zen Jabiartxo Martiarena uhartearen Uharte gazta. Martiarenak badaki lehiaketa irabaztea zer den, joan den urtean proba irabazi baitzuen. Lehiaketan Urdiaingo Ostizatarrek egiten duten Sarabe gaztak parte hartu zuen.

## Martiarenaren gazta hirugarrena Lizarrako Sanandresetan

San Andres feriak ospatu zituzten abenduko aurreneko asteburuan Lizarran. Haren barruan hamalagarren aldiz Urbasa-Andiako gazten txapelketa jokatu zen. 12 bat gazten artean erabaki behar izan zuen herriarrek osatutako epaimahaiak. Jendeari erabakia hartzen laguntzeko argibideak ematen egon ziren Idiazabal jatorri



Hotelaren mustutzean elkartu ziren.

## Kudeatzaile berriekin, Olatzea hotela berriro zabalik

30 pertsonari ostatu eman eta bi jangeletan 100 pertsonendako tokia du, kafetegiaz aparte

### ARAKIL

Izar Ondo hostalaren jabe den Reparaz-Lopez familia da Olatzea landa hotelaren kudeatzaile berria. "Arbizuko Udalak luzatutako eskaintza onartu eta gure esperientzia luzea Olatzeako orma zaharretara ekarri dugu". Izan ere, Reparaz-Lopez familiak XX. mende erdialdetik kudeatzen du Izar Ondo hostala, ordutik zerbitzua eman diena sakandarreri, bisitariei eta inguruko lantegietako langileei.

Zenbait hilabetez itxita egon ondoren, abendu hasieratik zabalik dago Olatzea landa hotela. Izar Ondoko kudeatzaile berriekin beraien "betiko ilusioa eta profesionaltasuna jarri nahi dizkiote ibilbide berrian". Haiena landa turismoaren sektorea, tokiko gastronomia eta Sakana kalitatezko zerbitzuak hobetzeko apustua da.

### Eraikinaren historiaz

Errota 1911n jaso zen. 50eko hamarkadara arte irina egin eta argindarra sortzeko erabili zen. 1960az geroztik udala da erroteren jabe. Udalaren ekimenez eraikina Olatzea landa hotel bihurtu zen 2008an. Eraldaketa horretan Leziza ibaiaren uren erabilpenerako sortutako egiturak mantendu ziren.



Parisen izan ziren sakandarrerako batzuk.

## Parisera joan ziren presoek aldeko urratsak eskatzera

Frantziako hiriburukoa eta gero ilbeltzaren 13an Bilbora joateko autobusetan izena eman daiteke

### SAKANA

*Bakea Euskal Herrian: orain presoak!* lelopean 11.000 bat pertsona elkartu ziren Parisen larunbatean. Haietatik ehun bat Sakana Sarek. Guztiek ere euskal presoek aplikatzen zaizkien eta senideei eragiten dieten salbuespen neurrien bukaera exijitu zuten. Jendetzak Euskal Herrian bake "justu eta iraunkorra" eratzeko gatazkaren ondorioak konpontzea ezinbestekoa dela azpimarratu zuen. Espainiako eta Frantziako gobernu

pausoak emateko eskatu zieten. Alderdi, sindikatu eta kargu desberdinetako hautetsiak egon ziren Parisko mobilizazioan.

Sakanako Sarek Parisetik Bilbora joateko deialdia egin zuen, ilbeltzaren 13an manifestazioa egiten baita Bizkaiko hiriburuan. *Elkarrekin aurrera egiteko prest gaude. Giza eskubideak. Konponbidea. Bakea. Euskal presoak Euskal Herrira leloa izanen du* Bilboko manifestazioak. Sakana Sarek jakinarazi du dagoneko autobusetan izena emateko aukera badagoela, hori ohiko tokitan egin daiteke.

## Olentzero iheslariez ahazteko, igandean plazan jarriko dira

Jasotakoa euskal iheslariek Baionan duten bulegora eraman eta handik eginen dute banaketa

### ETXARRI ARANATZ

Etxarri Aranazko Sostengu Taldeak euskal iheslari politikoen aldeko Olentzero ekimena antolatu du. Abenduaren 2an bezala, igande honetan ere plazan izanen dira 11:00etatik 14:00etara. Bitarte horretan etxarriarrek iheslariendako emanen dituzten opariak jasoko dituzte (eguberri jaki eta edariak, haurrendako arropak, jostailuak, liburua, musika...).

Euskal Iheslarien kolektiboak jakinarazi duenez, gutxi gorabehera 85-100 euskal herritarren

bizi direla gaur egun ihesean, horietatik 25 deportatura. Batzuk gaixotasun larriak pairatzen dituzte, eta gehienak 60 urte baino gehiagoko dituzte. "Bi estatuen guda zikinak 40 iheslari erail ditu". Hainbat arrazoiengatik beste 9 deportatu eta 25 iheslari hil dira beraien etxetatik urrun. 2013. urteko garagarrean etxeratzeko bide orria aurkeztu zuen Euskal Iheslari Politikoen Kolektiboak. Aldebakartasunez. Eta ordutik 128 iheslari itzuli dira beraien herrietara.

## SAK. NESKEN PALA

## EMAITZAK

Otaegi-Eizagirre / Suarez I.-Maiza **28-30**  
Goikoetxea-Eizmendi / Murillo-Etxaniz  
**20-30**

Suarez II.a-Parot / Larrarte-Mendinueta  
**13-30**

Murillo-Etxaniz / Muneta-Mendizabal  
**30-22**

## PARTIDUAK

## IGANDEAN, ARBIZUN

## Promozioa

**10:00** Naroa Suarez-Anne Maiza /  
Miren Larrarte-Uxue Mendinueta

Garazi Suarez- Izar Parot / Irati  
Otaegi- Olaia Eizagirre

## Eliteak

**12:00** Yanira Aristorena-Maite Ruiz de  
Larramendi / Miren Goikoetxea- Garazi  
Eizmendi

## Sakanako Nesken Pala Torneoa

Etzi, Arbizun, Sakanako Nesken  
Palako 3. jarduna jokoan.

## SAKANAKO PILOTA TX.

## PARTIDUAK

## OSTIRALEAN LAKUNTZAN

## Benjaminak, kimuak:

**18:00** Gurmino-Sarazibar (Olaz) /  
Beloki-Oletxea (Iru)

Alegria-Alegria (Lak) / Apaolaza-  
Vergara (Lak)

Lanza-Marquez (Alts) /

Lizarraga-Etxeberria (Iru)

Olo-Lakuntza (Lak) / Etxabari-  
Razkin (Arb)

Ducar-Razkin (Arb) / Zubiria-  
Jokin Olarra (Arb)

Escudero-Nagore (Iru) /  
Berastegi-Ganboa (Lak)

## OSTIRALEAN ETXARRIN

## Jubenilak:

**18:30** Otxoa-Berastegi (Etx) /  
Olaetxea-Araña (Etx)

Lima-Petriati (Etx) / Ansotegi-  
Gonzalez (Etx)

Araña-Lazkoz (Etx) / Beloki-  
Lizarraga (Etx)

## LARUNBATEAN IRURTZUNEN

## Haurrak:

**10:30** San Roman-Agirretxe (Alts) /  
Arretxe-Razkin (Ald)

Lezea-Gimenez (Ald) / Ortiz-  
Ezkurra (Iru)

Ziordia-Ziordia (Alts) /  
Garmendia-Imaz (Ald)

## LARUNBATEAN ARBIZUN

## Kimuak:

**11:00** Miteku-Maren / Amado-Arretxe  
Martiarena-Markina / Aristizabal-  
Arretxe

Leiza-Gainzarain / Zabala-  
Apaolaza

Lizarraga-Manjon / Ioritz-Enaitz

## LARUNBATEAN ALTSASUN

## Kadeteak:

**11:00** Olabide-Alegre / Gainzarain-  
Estanga

# Etxarri Aranazko Txakurkrosa etzi jokoan

**TXAKURKROSA** Igandean, 9:00etatik aurrera jokatuko da proba Etxarri Aranazko kanpinean. Hiru modalitate izanen dira: bikejoring, patina eta txakurkrosa. Sari ematea herriko plazan izango da, 12:30ean

Txakurrari lotuta korrika egitea. Hori da, modu xumean azaldu-ta, txakurkrosa. Baina hori baino asko ere gehiago da. Hainbat modalitate daude: txakurkrosa, txakurrari lotuta korrika egitea; bikejoring, parte-hartzailea bizikletari lotua joatea eta txakurrak bizikletari lotua; eta patina, parte-hartzailea patin batean joatea eta txakurrak patinari lotuta. Bada, modalitate hauek guztiak zuzenean ikusteko aukera izango dugu igandean, etzi jokatuko baita I. Etxarri Aranazko Txakurkrosa. Etxarriko Xalok kirol, dietetika eta nutrizio zentroak eta Euskanikross taldeak antolatu dute proba.

Euskanikross taldeko Igor Artieda etxarriarrarekin bildu gara. Azaldu digunez, Xalok zentroari otu zitzaion proba antolatzea. "Xalokeko lantaldean txakurkrosean aritzen den mutil bat dago. Ana Carmen Huar-te nagusiak txakurkrosa antolatzearen ideia begi onez ikusi zuen eta halako probetan aritzen naizenez, asmoa aipatu zidaten. Baiezkoa eman eta hor gabiltza, gutzia prestatzen".

## Urtasun, Lanz eta Artieda

Igor Artieda aurreko urtean hasi zen txakurkrosean. "Mendi lasterketetan ibiltzen naiz. Iaz txakur bat adoptatu genuen eta mendira entrenatzera joaterakoan nirekin eramaten hasi nintzen. Txakurkrosaren inguruko informazioa eskatu nuen, gutxinaka hasi nintzen eta esperientzia izugarri polita denez, horretan jarraitzen dut. Euskanikrossa taldeko kide egin nintzen eta iaz, garai honetan hasi nintzen halako probetan parte hartzen" azaldu digu etxarriarrak. Hala ere, Sakanako txakurkrosean aritzen diren beste kirolari batzuk badaude. "Juan Bautista Urtasun urdiaindarrak 20 urte baino gehiago daramatza mundu honetan. Berak bizikle-



Ibilbidea izugarri gustatu zaie entrenatzen ibili direnei. EUSKANIKROSS

## "PROBA IKUSGARRIA IZANEN DA ETA ZUZENEAN IKUSTEKO GONBITEA EGITEN DIEGU SAKANDARREI"

tarekin eta patinarekin parte hartzen du. Eskarmentu handia du eta primeran dabil; gaur egun Espainiako Kopan laugarrena edo bosgarrena da. Igandeko Etxarriko proban aritzekoa da" nabarmendu du Artiedak. Iganderako ere izena emana dagoena Igor Lanz arakildarra da.

Txakurkrosa ez da berria Sakanan. Duela 20 urte inguru Altsasun probaren bat antolatu zuten. Baina ordutik ez da egin. "Hemen txakurkrosean aritzeko baldintza paregabeak daude: xenda ederrak, politik eta luzeak, desnibelarekin edo desnibel gabekoak... inguru ikusgarria da halako probetarako. Urrian Euskanikrossa taldekoekin ibilbidean barna ibili ginen eta txundituta geratu ginen. Egunotan ere kirolariak etorri dira, probatzera, eta liluratuta joan dira" nabarmendu du Artiedak.

## Etzi, Etxarriko kanpinean

Lasterketa Etxarriko kanpinean jokatuko da, igandean. Goizeko 8:00etan albaitariak txakurrei kontrol probak egingo dizkiere. "Txakurren ongizatea bermatua egon behar da proba hauetan. Hori da arau nagusia. Albaitariak lasterketa aurretik txakurrak ikuskatzen dituzte, bakunak ongi dauden, arnasketa nola duten, hankak ongi dituzten... ikusteko. Proban barna bakoitzak ikusi behar du nola dagoen txakurra eta sufritzen badago, erretiratu beharko luke. Txakurrek beroarekin sufritu egiten dute, eta 17 gradutik gorako tenperaturekin neurriak hartzen dira: ordutegia aldatu, ibilbidea laburtu eta baita proba bertan behera uztea ere" azaldu digu. Baina igandean ez da arazorik egongo. "Txakurkrosean aritzeko aparteko eguna izango dugu. Gradu bat eta seiren bitartean, guretako primerakoa".

Lasterketa Etxarriko kanpinetik abiatuko da. 50 parte-hartzaile inguru zeuden izena emanda ostegun goizean www.kirolprobak.com web orrian, punta-koak. Goizeko 9:00etan bikejoring eta patinen modalitatekoak

abiatuko dira (6 km), 10:00etan txakurkrosa herrikoa (3,4 km) eta 10:45ean txakurkrosa (6,3 km). 11:30ean haurrendako txakurkrosa antolatu dute, 800 metrokoa, txikiengana afizioa sortzeko. Triku Trail mendi lasterketako paraje batzuetatik barna ibiliko dira parte-hartzaileak. "Lehenengo kilometroa eta azkeneko bi kilometro erdiak Triku Trailekoak dira. Haiek mendian gora jotzen dute eta gu behealdean ibiliko gara. Proba ederra espero da, ibilbide ikusgarriaz gain, maila bikaineko jendea etorriko delako" esan digu Artiedak. Bera ez da ariko, lesio bat tarteko eta antolakuntzan murgildua egongo delako.

## Ikusgarria

Halako probak ikusgarriak dira nabarmendu du etxarriarrak. "Abiadura izugarrikoa da, bereziki bizikleta eta patinetan doazen kasuan. Korrikariak ere azkar dabilta. Izan ere, txakurrak tira egiten dizu, puntu bat harago eramaten zaitu. Distantzia bat zuk bakarrik 3:30ean egiten baduzu, txakurrarekin 3:15ean egingo duzu edo gutxiago. Beraz, txakurrarekin lotuta, 15 segundoko abantaila ateratzen duzu. Horregatik lasterketa motzak dira, esplosiboak" zehaztu digu. Eta, horregatik, igandean Etxarriko kanpinera gerturatzera animatu ditu sakandarrak. "Giro polita egongo da. Ibilbidea ere polita da, ikusgarria. Mundu hau ezagutzen ez dutenentako, txakurrak maite dituztenentako eta orohar, guztiendako diziplina ikusgarria da eta gozatzeko aukera ona da igandean Etxarri duguna. Ea proba ikustera jendea animatzen den. Ibilbide guztian barna jarraitu daiteke proba, baina Auntzetxera bidean, pinudi baten ondoren dauden aldapa edo tobogan moduko horretan, are ikusgarriagoa izanen da ikustea" gomendatu du.

## Sari ematea eta erakusketa, plazan

Etxarriko kanpinean txakurkrosa despeditu eta gero, herrira jaitsiko dira parte-hartzaileak. 12:30ean sari ematea eta auzatea izango da herriko plazan, eta 13:30ean txakurren agility erakusketa antzekoa izanen da plazan, Dorraoko Otsanda zentroari esker.



Egurdian izanen da proba.

## Altsasuko San Silvestre zikloturista, sorpresekin

**TXIRRINDULARITZA** Aurretik izena ematen dutenek 45 euroko balioa duen saskia jasoko dute opari

Sociedad Deportiva Alsasuak (SDA) antolatutako XXXV. San Silvestre zikloturista martxa-Urbasako igoerak 35 urte beteko ditu aurten. "Uste dugu estatu mailan San Silvestrean antolatzen den txirrindularitza proba bakarra dela gurea. 35. urterrena denez, eta txirrindulariei euren fidelotasuna eskertzeko, Conservas del Reynorekin elkarlanean zerbait berezia egitea erabaki dugu" adierazi du SDA-ko txirrindularitza arduradun Felix Mazkianek. Horrela, urteko azken eguneko proba ez lehiakorrerako izena aurretik ematen dutenek Conservas del Reynoko saski ederra jasoko dute, 45 euroko balioa duena. "SDA klubaren web orriaren bitartez -www.sdalsasua.com-edo sdalsasua@gmail.com epostaren bidez eman daiteke izena, 18 euro ordaindu beharko dira gure kontu korrantean (ES61 2100 3729 2222 0010 9899) eta trukean, Conservas del Reynoko saskia jasoko dute. Opari polita dela pentsatzen dugu" gaineratu du Mazkianek.

Aldiz, probaren egunean bertan izena ematen dutenek, 10 euroko inskripzioa egingo dute eta kamiseta jasoko dute opari. Zikloturista proba abenduaren 31n abiatuko da, 12:00etan.

# Mendigoizaleen Eguna etzi Aralarren

**MENDIA** Igandean 53. Mendigoizale Eguna ospatuko da Aralarren. Mendizaleak herri desberdinetatik aterako dira, Aralarren biltzeko. Hildakoak oroitu eta urtea despeditzeko modu polita da

Gabonen aurreko igandean, ohi bezala, Euskal Herriko Mendigoizale Eguna ospatuko da Aralarreko Santutegian. Mendizaleen egutegietan gorritz markatutako data, klub ezberdinetako mendizaleak bildu, eurekin ez daudenak oroitu, aspaldiko lagunak ikusi eta urtea despeditzeko egun aproposa baita.

1964. urtean, urte horretan hildako hiru mendizale gogoratzeko ekitaldia egin zen Aralarren eta hortik aurrera urtero errepikatu izan da. Hortaz, igandekoa festaren 53. edizioa izango da. Festa antolatzeko txandakatu egiten dira Nafarroako mendi klubak eta aurten Boscos taldeari eta Irurtzungo Iratxo elkarteari egokitu zaie ardura.

### Meza eta ondoren auzatea

Goizean goiz ekingo diote mendizaleek Aralarreko igotzeko lanari. Toki ezberdinetatik abiatuko dira. Askok Uharte Arakil-dik, baina baita Lakuntzatik,



Aurreko urtean eguraldi bikaina izan zuten mendizaleek. PEDRO GONZALEZ

Madotzetik, Lizarrustitik eta Lekunberri aldetik ere bai. Sakanako Mendizaleak taldeak goizeko 8:30ean jarri du hitzordua Lakuntzan.

Goizeko 11:00etan izanen da mendizaleen meza elizkizun

nagusia. Mendiko materiala bedeinkatu eta Aralarreko Mikel Goiaingeruari musu emateko aukera izango da. Ondoren, haizetako ederra egonen da prest, musika lagun dutela. Askok bazkaltzera ere geldituko dira.

## Maider Iragi bigarrena Arronizko I. Cross Trailean

### MENDI LASTERKETAK

Elurpean jokaturako proban oso ongi ibili zen irurtzundarra

Abenduaren 2an Arronizko I. Cross Traila jokatu zen. Elurra, izotzari eta sekulako hotzari egin behar izan zioten aurre korrikalariak. Proba luzean (14 km) Ion Sola gailendu zen (1:03:23). Emakumezkoetan Iratxe Garciak eta Maider Iragi irurtzundarrak lehia polita izan zuten. Azkenean Garciak irabazi zuen (1:27:59), Iragiri 39 segundo aterata (1:28:38).

### Lopez eta Bergara 27.ak Zarautzen

Abenduaren 3an Zarautzko lasterketa mistoa jokatu zen, gizonzkoek eta emakumezkoek osatutako bikoteetan lehiatzeko proba. Guztira 538 bikotek lortu zuten proba bukatzea eta Abadiño Oihana Azkorbebetia eta Eneko Zarrabeitia izan ziren irabazleak (27:31). Dantzaleku Sakana klubeko Ginesa Lopez eta Peio Bergara 27.ak iritsi ziren helmugara (32:07).

## Garcia, Ulaiar eta Mercero

Abenduaren 1ean Nafarroako Kirolaren Sariak banatu zituen Uxue Barkos presidentek. Pello Garcia arakildarrak eta Migel Ulaiar etxarriarrak zilarrezko domina jaso zuten, 30 urtez baino gehiago futbola eta mendizaletasuna sustatzeagatik. Joxemari Merceroari aipamen berezia egin zioten, 78 urterekin, oraindik atletismo probatan jarraitzen duelako.





Ongay eta Bergera, gainontzeko txapelketaren ondoren. D.NOTICIAS

## Ongay eta Bergera Nafarroako senior mailako txapelketaren ondoren

**PILOTA** 22 urtez azpiko txapelketan Nazabal eta Arbizu (Irurtzun) izan dira txapelketak

Abenduaren 9an Nafarroako senior mailako Pilota Txapelketako finalak jokatu ziren Labriten. Irurtzun klubeko Alberto Ongay satrustegiarrak eta Iosu Bergera arruazuarrak Ultzama klubeko Iriarte eta Otxandorena izan zituzten aurkari. Partida oso lehiatua izan zen, eta nahiz eta hasieran sakandarrak aurreratu (3 eta 7), Ultzamakoak gerturatu ziren. Materialak gutziz baldintzatu zuten partida; Irurtzungoek pilota motelago baten alde egin zuten; azkarra goa, aldiz, Ultzamakoena. Azkenean, oso alde gutxigatik txapelarik gabe geratu ziren sakandarrak, Iriartek eta Otxandorenak 18 tantotan utzi baitzituzten.

Aldiz, 22 urtez azpiko Nafarroako Txapelketako txapelak Sakanara etorri ziren. Irurtzun klubeko Nazabalek eta Arbizuk 22 eta 12 irabazi zieten Obere-nako Okiñenari eta Cordoni.

### Ongay Uharteko lau t'erdiko txapelketak

Frontoia lepo zegoela jokatu ziren Uharteko lau t'erdiko finalak. Gizonezkoen finalen Alberto Ongayk ikusgarri jokatu zuen, hasieratik dominatu zuen eta 7 tantotan utzi zuen Ojuel.

### Bergera Garferekin

Abenduaren 4an Garfe enpresak 2018ko pilotariaren aurkezpena egin zuen. Errioxako enpresan 18 pilotari ariko dira, sakandarrak tartean, Iosu Bergera arruazuarra. Arruazuarrak iaz debutatu zuen Garferekin, eta udako denboraldi osoa egin zuen eurenkin. Titin III.a, Xala, Tainta, Sancho, Garrido V.a, Urbietta, Mendinueta, Gorrotxategi, Azanza, Zabala, Urruzola, Aldabe, Galarza, Lobato VI.a, Jaio, Sainz II.a eta Mendy izanen ditu taldekide 2018an.

## MENDIA Iztuetak Khan Tengri hizpide gaur Lakuntzan

Lakuntzako Zabalarte Mendi Taldeak gonbidatuta, gaur, ostiralean Joseba Iztueta mendizalea hurbilduko da Lakuntzara. 19:30ean, Lakuntzako Kultur Etxean, "Khan Tengri, mendizaletasunaren hizkuntza" izeneko bideoa erakutsiko du Iztuetak. Diezekin batera Khan Tengrira (7010 m) egindako espedizioa erakusten du bideoak.



Joseba Iztueta espedizioan. IZTUETA

# Binakakoa: sakandarrak elkarren kontra

**PILOTA** Binakako hasierako ligaxkako 4. jardunaldian Ezkurdia eta Zabaleta Altuna III. aren eta Martijaren kontra lehiatuko dira bihar, larunbatean, Labriten. Bi bikoek bina puntu dituzte eta hirugarrena lortzeko lanean borroka estua espero da

Binakako Pilota Txapelketako 3. jardunaldiak denetatik utzi zuen. Ligaxkako lehen bi jardunalditan irabazi eta gero, Altuna III.ak eta Martijak ezin izan zuten punturik lortu Olaizola II.aren eta Imazen kontra. Partida oso gogorrean, 22 eta 20 irabazi zuten Olaizolak eta Imazek. Partida ia gehienez Altuna eta Martija egon ziren aurrean; primeran hasi ziren, erritmo bizian, baina Olaizola beterrano handia da eta partidaren azken aldean egoerari buelta ematen jakin zuen. 18 eta 20 galtzen joan ondoren, azkenean 22 eta 20 irabaztea lortu zuten Asegarekoek. Martijak partida ona egin zuen, baina bukaeran egindako esfortzua nabaritu zitzaion.

Txanponaren beste aldean, Ezkurdiak eta Zabaletak txapelketako bigarren puntua lortu zuten larunbatean Labriten, Bengoetxea VI.ari eta Larunberi 19 eta 22 irabazi eta gero. Giro ederra zegoen Labriten eta partida oso bizia eta ikusgarria eskaini zuten lau pilotariak. Hasieran Bengoetxeak eta Larunbek hartu zuten aurrea, baina Zabaleta atzeko koadroetan agintzen hasi zen eta 4 eta 12 aurreratu zen biko sakandarra. Eta izugarri jo zuen Etxarrengoak. Bengoetxea ez zegoen eroso eta Larunbek ez zuen aurreko jardunaldietako maila eman. Horrela, Zabaletak eta Ezkurdiak aurrera segi zuten, Bengoetxea ekiditen eta Larunbe erasotzen. Hala ere, Asegarekoek ez zuten etsi eta 14 eta 18 hurbildu ziren markagailuan. Orduan Ezkurdiak eta Bengoetxeak lehia ikusgarria izan zuten aurreko koadroetan. Pilota zaleak aukeratu jaso zituzten, tanto ikusgarriak tarteko. Ezkurdia erabakiorra izan zen azken txanpan eta, azkenean, 19 eta 22 gailendu ziren sakandarrak. "Gaur elkarrekin bikain ulertu gara. Bide honetan ja-



Ezkurdiak eta Zabaletak partida bikaina jokatu zuten aurreko astean. A. CANELLADA

## BIHAR LABRIT SAKANDARREZ BETEKO DA; PRIMERAKO GIROA AURREIKUSTEN DA

rraitu behar dugu" adierazi zuen Ezkurdiak partida bukaeran. "Gure herrietatik etorri diren lagunei eskerrak eman behar dizkiet. Izugarri lagundu gaituzte" gaineratu zuen Zabaletak.

### Derbia

Bihar Labrit pilotalekuan sakandar ugari bilduko dira. Izan ere, Ezkurdiak eta Zabaletak Altuna III.a eta Martija izanen dituzte aurkari. Arbizukoa eta Etxarrengoak Etxeberrikoaren eta Amezetakoaren kontra. Txapelketa honetan lehenengoz elkarren kontra ariko dira sakandarrak. Material aukeraketa ostegunean egingo dute, goizeko 10:30ean.

Bi bikoek bina puntu dituzte eta, hortaz, hirugarrena lortzeko dute jokoan. Izan ere, txapelketa orekatua ari da izaten, oraindik ez baitago nabarmendu den

bikoterik. Bost bikotek bina puntu dituzte –Victor-Albisu, Altuna III.a-Martija, Olaizola II.a-Imaz, Ezkurdia-Zabaleta eta Urruti-Galarza– eta beste hiru bikotek bina puntu bana –Bengoetxea VI.a-Larunbe, Irribarria-Merino II. eta Elezkano II.a-Rezusta.

Sakandarren arteko derbirako ez dago faborito argirik eta erritmo biziko partida aurreikusten da. Giroa ere, halakoa izango dela espero da. Ea noren zakura erortzen den jokoan dagoen hirugarren puntua.

## Binakako 4. jardunaldia

### Partidak

- Bengoetxea VI.a-Larunbe / Elezkano II.a-Rezusta (ostiralean, 22:00etan, Oñatin. ETB1)
- Ezkurdia-Zabaleta / Altuna III.a-Martija (larunbatean, 17:00etan, Labriten. ETB1)
- Olaizola II.a-Imaz / Victor-Albisu (Igandean, 17:00etan, Logroñon. ETB1)

# Etxeberria eta Gonzalez bikain Espainiako Kopan

**PISTA TXIRRINDULARITZA** Nafarroako selekzioan hiru sakandar lehiatu dira. Josu Etxeberria junior mailako sailkapenean liderra da eta Bakarne Gonzalez bosgarrena. Martxel Etxeberriak kadete mailan debutatu zuen eta lan polita egin zuen.

Asteburuan Espainiako Pista Kopako lehen jardunaldia jokatu zen Valentzian. Nafarroako selekzioarekin Josu eta Martxel Etxeberria anaiak eta Bakarne Gonzalez lehiatu ziren.

Josu Etxeberria hirugarrena sailkatu zen scratchean, bigarrena kanporaketa proban eta txapelduna puntuazio proban. Junior mailako lider dugu iturmediarra. Bakarne Gonzalez altsasuarra txapelduna izan zen scratchean, bigarrena kanporaketa proban, eta emakumezkoen juniorren sailkapen orokorrean bosgarrena da. Eta Martxel Etxeberriak, kadete mailan lan polita egin zuen.



Etxeberria anaiak eta Gonzalez, Nafarroako selekzioan. NAFARROAKO FEDERAZIOA



Igor Arrieta, Elorrión. MARTIN EARLY

## TXIRRINDULARITZA Igor Arrieta Arrasaten eta Zuian txapeldun

Abenduaren 3an Arrasateko Ziklokrosa irabazi zuen Intersport Irabiako Igor Arrietak, kadete mailan. Abenduaren 8an ere garaipena lortu zuen, Zuia-ko Ziklokrosean. Quesos Albeniz taldeko Iker Mintegi 12.a sailkatu zen. Eta igandean, Igorreko Ziklokrosean, bigarrena sartu zen Igor Arrieta, Roberto Galloren atzetik. Iker Mintegi 21.a sailkatu zen.

## Osasuna Magnak Santiago Futsal aurkari gaur Galizian

**ARETO FUTBOLA** Osasuna Magnak inoizko liga hasierarik onena egin du. Laugarrena da, 33 punturekin

Inoizko liga hasierarik onena egin du Osasuna Magnak. Asteartean despeditu zen lehen mailako ligako lehen itzulua eta dagoeneko 33 puntu ditu Imanol Arregiren taldeak. Errekorra da hori talde berdearendako, orain arte gehienez 26 puntu lortu baitzituen ligako lehen bueltan. "Lehen itzuli ikusgarria egin dugu, ohorezko matrikulakoa" nabarmendu du Imanol Arregik. Pozik egoteko arrazoi asko ditu entrenatzaileak.

Asteartean O'Parrulo Ferrol izan zuen aurkari talde berdeak. Partida ikusgarrian, 2 eta 5 irabazi zuten Imanol Arregiren mutilek. Araça, Eric Martel, Dani Saldise, Rafa Usín eta Bynho izan ziren golegileak.

**Gaur Santiago Futsalen kontra** Lehen mailako sailkapenean Movistar Inter da liderra (40



Berdeak laugarrenak dira. XOTA

puntu). Osasuna Xota laugarrena da (33 puntu). Jokalari berdeak Galizian daude asteartetik, izan ere, gaur, ostiralean 7 punturekin sailkapenean 14.a den Santiago Futsalen kontra jokatu baitute. Ea berdeen zakuak lotitzen jarraitzen duen.



IÑIGO ARITZA IKASTOLA

## Iñigo Aritzako txapeldunak

**PILOTA** Igandean Iñigo Aritzako Txapelketako finalak jokatu ziren. Lanzak 18 eta 2 irabazi zion Mitxelenari, Zubiriak 18 eta 3 Gastesiri, San Romanek 18 eta 15 Sanzoli, Igoak 18 eta 9 Olaizi, Azpeitiak 18 eta 16 Mitxelenari, Agirretxek 18 eta 7 Landari, Lumberrersek 18 eta 8 Galartzari, Lezeak 18 eta 13 Navarriori eta I.Olabidek 18 eta 14 E. Olabideri.

## PREFERENTE MAILA

**EMAITZAK**  
Lagun Artea – Arrotxapea (atzeratuta)  
Artajonés – Etxarri Aranatz 2-0

**SAILKAPENA**  
1. Infanzones 27  
14. Lagun Artea 10  
16. Etxarri Aranatz 6

**PARTIDUAK**  
IGANDEAN  
15:45 Etxarri Aranatz – Lagun Artea San Donaton

Lagun Artearen eta Arrotxapearen arteko partida abenduaren 23ra atzeratzea erabaki zen. Bestalde, Artaxoan ongi ibili zen Etxarri, baina Artajonésak gola sartu zuen eta nahiz eta Etxarri saiatu, bukaera aldera bigarrena lortu zuen Artaxoako taldeak. Igandean derbia jokatu dute Lagun Arteak eta Etxarri, San Donato zelaian.

## ERREGIONAL MAILA

**EMAITZAK**  
San Ignacio – Altsasu 1-0  
Lagunak B – Altsasu 3-0

**SAILKAPENA**  
1. Lagunak B 25  
6. Altsasu 17

**PARTIDUAK**  
LARUNBATEAN  
15:30 Altsasu – Beti Kozkor Dantzalekun

Azken bi partidak galduta, seigarrena da Altsasu. Bihar Beti Kozkor hartuko du.

## EMAKUMEEN ERREG.

**EMAITZAK**  
Peña Sport – Altsasu 2-0

**SAILKAPENA**  
1. Berriozar 37  
14. Altsasu 11

**PARTIDUAK**  
ILBELTZAREN 7AN  
Zehaztu gabe Altsasu – Zarramonza Dantzalekun

Altsasu 14.a da sailkapenean. Ilbeltzaren 7ra bitartean atseden hartuko du emakumeen erregional mailak.

## SAKANAKO TOPAKETAK

**KIMUAK**  
IGANDEAN 6. JARDUNA ALTSASUN  
10:00 Urdiain – Tipi Tapa  
10:00 Sutegi – Kaixo  
11:00 Lagun Artea – Etxarri Aranatz

Sakanako Futbol Topaketen barruan, igandean, abenduaren 3an, kimuen mailako 6. jardunaldia jokatu da Altsasuko Dantzalekun.



# XVII. Sakanako Xake Txapelketa bihar Arbizun

**XAKEA** Sakanako Mankomunitateak eta Sakanako Zaldi Beltza Xake Taldeak antolatuta, bihar, larunbatean, 10:00etatik aurrera jokatu da Arbizuko kanpinea. Egun osoko txapelketa izango da.

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, Sakanako Zaldi Beltza Xake Taldearen laguntzarekin XVII. Sakanako Xake Txapelketa antolatu du bihar. Txapelketa, aldi berean, Nafarroako Xake Txapelketa izango da 1.900 ELO puntutik behera. Txapelketa Arbizuko kanpinea jokatu da, goizeko 10:00etatik aurrera.

## 20 minutuko 8 partida

Metodologiari dagokionez, txapelketa 20 minutuko 8 partidara jokatu da. Helduen mailan, lehenengo zazpi sailkatuek saria izango dute eta gazteen mailan, lehenengo hirurek.



Aurreko urtean Urdiainen jokatu zen.

Aurreko urtean Urdiainen jokatu zen txapelketa. 22 xakelari lehiatu ziren, horietatik 5 sakandar. Manex Regillagak sorpresa eman zuen, eta nahiz eta lehiakide gazteena izan, 11 urte baitzitu, Sakanako Txapelketa irabazi zuen eta 16 urtetik beherako mailan ere txapelduna izan zen Elorrioko gaztea. Sakandarren artean Koldo Flores izan zen onena, sailkapenean 12.a.

## Izena emateko

Izena ematea egunean bertan egin behar da, Arbizuko kanpinea, goizeko 9:30ean. Prezioa: 5 euro.



Sakanako Aizkora eta Harri-Jasotze eskoletako kideak izanen dira tartean.

## Sakanako Herri Kirol Jardunaldia igandean Ziordian

**HERRI KIROLAK** Herri kirolarien urte bukaerako festa igandean izango da, 12:00etan, Ziordiko frontoian

Sakanako Herri Kirol Jardunaldia Gabonetako bezperetako klasikoetako bat da. Mank-ek antolatzen du, Sakanako herri kirolarien laguntzarekin. Sakanako herri kirolarien festa aurtentziordian izanen da, igandean, 12:00etan, frontoian.

## 41 herri kirolari

Guztira 41 herri kirolarik hartuko dute parte jaialdian: 24 aizkolarik, 3 harri-jasotzailek eta 14 trontzalarik, soka tira-tzailek eta koxkol biltzailek. Ondoren bazkaltzera bilduko dira Ziordiko Urbasa tabernan.

**[ESKAINTZAK UDAZKEN - NEGUA 2017]**

# EZ DUT BESTE EZERENGATIK ALDATUKO

(EZ BADA BESTE STIHL BATENGATIK)



**150 €**  
RAINO BEZA BARNE



Ekinza eta eskaintza baldizkoak 2017ko abenduarren 22ra arte



**Zure denda espezializatuan bakarrik**

# Barricarten Etxeberria eta Dominguez txapeldun

**ATLETISMOA** Altsasuko Zubezia elkarteak antolatutako Barricarte Memorialean 156 korrikalarik hartu zuten parte. Guztira 44 sakandarrek osatu zuten proba eta Beñat Katarain eta Izaskun Beunza izan ziren lehenak

Abenduaren 8an jokatu zen Altsasuko Zubezia elkarteak antolatutako 37. Oinezko Lasterketa-34. Alberto Barricarte Memoriale. Euria eta hotza, ez zen giro. Hala ere, 156 korrikalarik hartu zuten irteera, Altsasuko herrian barna prestatutako zirkuituari 4 buelta emateko asmoz (10,6 km). Aurreko urtearekin alderatuta, ia 100 korrikalari gutxiagok parte hartu zuten, 2016an 253 aritu baitziren. Zubi luzeak eta euriak eragina izango zutela entzuten zen Altsasun bildutakoen artean.

Goizeko 11:30ean irten ziren korrikalariak. Hasieratik hartu zuen aurrea Beste Iruña taldeko Antonio Etxeberria iruindarrak. Berak lortu zuen garaipena (33:15), Iker Ortiz de Zarate gasteiztarrari 43 segundo aterata (33:58). Lazkaoko Angel Vázquezek osatu zuen podiuma (34:27). Etxeberriak hirugarren aldiz irabazi zuen Altsasuko proba, eta helmugan adierazi zuenez, hasieratik erritmo bizian hasi zen, "lurra bustia zegoenez, taldean korrika egitea arriskutsua zelako". Emakumezkoetan lehia estua izan zuten Veronica Dominguez gasteiztarrak eta Izaskun Beunza olaztiarrak. Bi korrikalariak batera osatu zuten lasterketa, eta azken metroetan



Euriak irristakorra bilakatu zuen proba, baina korrikalariak ez ziren kikildu.



Dominguezek aurretik sartzea lortu zuen (40:00). Izaskun Beunza bigarrena sartu zen, denbora berean. Dominguezek aipatu zuen Altsasukoa oso proba azkarra eta polita zela, Gasteizko Maratoi Erdia prestatzeko "oso ona".

Urte bukaerako San Silbestre lasterketak prestatzeko proba proposa izan zen Altsasukoa. Sakandarrei dagokienez, Zegaman bizi den Beñat Katarain lakuntzarra 10.a sartu zen (35:21) eta Sergio Garcia de Eulate altsasuarra 12.a (35:31). Emakumezkoetan, Izaskun Beunza olaztiarra bigarrena sailkatu zen (40:00) eta Ginesa Lopez altsasuarra seigarrena (44:40). Guztira 44 korrikalari sakandarrek osatu zuten proba.

Proba oso herrikoia, urte bukaeran bildu, San Silbestreak prestatu eta giro onean egoteko aprobetxatzen dute korrikalariak. Sakandarrez eta nafarrez gain, Arabako eta Gipuzkoako korrikalari ugari hurbiltzen da eta giro polita sortzen da, jende asko hurbiltzen baita proba jarraitza. Ez da saririk egoten, baina bukaeran Zubezia elkarteak antolatzen duen primerako auzatea da saririk onena. Ohiko jakiez eta edariez gain, txistorra eta gibela tipularekin dastatzeko aukera izan zuten bildutakoek.

Bestalde, aipatzekoa da Barricarte Memorialeak Sakanako Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Saria erabaki zuela.

**PROBA OSO HERRIKOIA, SAN SILVESTREA PRESTATZEKO BIKAINA DA**

## Sakandarrak Barricarte Memorialean

### Gizonak:

1.A.Etxeberria (Iruñea):	33:15
10.Beñat Katarain (Lak):	35:21
12.Sergio G. de Eulate (Alts):	35:31
14.Javier Borrega (Alts):	36:14
15.Raul Audikana (Olaz):	36:14
16.Juan Larrea (Alts):	36:28
20.Juan C.Gomez (Alts):	37:11
22.Fco. Gomez (Alts):	37:27
23.Iñaki Alvaro (Alts):	37:27
27.Alberto del Rio (Alts):	38:02
29.Javier Gasanz (Alts):	38:13
32.Iker Flores (Alts):	38:31
34.Iñaki Romero (Alts):	38:45
35.Jose Jav. Maiza (Etx):	38:45
39.J. R.Ramirez (Alts):	39:14
40.J. I.Mikeo (Lak):	39:14
45.Asier Estarriaga (Etx):	39:29
46.Fran Araña (Arb):	39:29
51.F. Ganuza (Olaz):	39:57
63.Gorka Chamorro (Alts):	41:10
65.Mikel Astiz (Ihab):	41:10
66.Egoitz Aldaz (Olaz):	41:14
70.M.Somocurcio (Alts):	41:50
73.Aritz Etxeberria (Alts):	42:14
75.Asier Palacios (Alts):	42:41
77.A.Mazkaran (Alts):	42:49
79.J.A. Fernandez (Alts):	42:59
84.Eneko Garasa (Alts):	43:13
92.Ruben Cantero (Alts):	44:12
95.Iosu Urriza (Hirib):	44:22
96.Peio Bergara (Alts):	44:40
98.Ruben Garcia (Alts):	44:40
108.J.A. Salgado (Alts):	45:21
110.Iurgi Flores (Zior):	45:33

### Emakumeak:

53.Veronica Dominguez:	40:00
55.Izaskun Beunza (Olaz):	40:00
97.Ginesa Lopez (Alts):	44:40
106.Leire Estarriaga (Etx):	45:20

\*Osoa: [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

## Sakana Patin garaile Tolosan

**IRRIKAKETA** Abenduaren 3an Tolosan III. Indoor Irristaketa jokatu zen, Irristaka taldeak antolatutakoa. Bakarkako probetan Anne Lapuente ziordiarra lehena sailkatu zen eta Ana Rita Correia altsasuarra hirugarrena. Eta amerikar erako erreleboetan, Maitane Igoak, Ana Rita Correiak eta Anne Lapuentek osatutako Sakana taldea izan zen txapelduna.



## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI. gutunak@guaixe.eus

## OSTIRALA 15

**ALTSASU Merkatruke, trukerako gunea.**  
17:00etan, Intxostiapunta gunean.

**ETXARRI ARANATZ Bidea eginez. Nafarroako ikastolak 1969tik 1991ra arte** liburua aurkeztuko du Juan Luis Larrazak.  
19:00etan, kultur etxean.

**ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa.**  
19:00etan, Kale Nagusiko 7. zenbakiaren parean.

**LAKUNTZA Kha Tengri, mendizaletasunaren hizkuntza Joseba Iztuetaren bideo emanaldia antolatu du Zabalarrek.**  
19:30ean, kultur etxean.

**ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak.**  
20:00etan, plazan.

**ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa.**  
20:00etan, udaletxe parean.

**ALTSASU Erkudengo Ama abesbatzaren eguberri kontzertua.**  
20:30ean, elizan.

**IRURTZUN Uxue Alberdi eta Xabier Terreros bertsolariekin afaria.**  
21:30ean, Iratxo elkartearen.

**ALTSASU La librería filma.**  
22:00etan, lortia kultur gunean.

**ALTSASU Nekez eta Atzapar rock taldeen kontzertuak.**  
23:00etan, gaztetxean.

**OLATZAGUTIA Si, hombre!!!** bakarrikzeta egingen du Sol

**Magunak.**  
23:00etan, Barandi tabernan.

## LARUNBATA 16

**ALTSASU Merkatruke, trukerako gunea.**  
17:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

**ALTSASU Ile-apaindegi eta makillaje tailerra.**  
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

**URDIAIN Aitziber Urdiaingo gaztedia Aitziber elkartearen historia jasotzen duen dokumentalaren mustutzea.**  
20:00etan, elizan.

**ALTSASU Los del Rayo sinfonikoa kontzertua emanen dute izen bereko taldeak, Haize Berriak bandak eta Erkudengo Ama abesbatzak.**  
19:30ean eta 21:30ean, lortia kultur gunean.

## IGANDEA 17

**LAKUNTZA Aralarko Mendigoizale Egunera joateko ibilaldia antolatu du Sakanako Mendizaleak taldeak.**  
08:30ean, plazatik.

**ALTSASU Arabako Lautadara 68 km-ko joan-etorria egingen du Barranka txirrindulari klubeko mendi-bizikleta taldeak.**  
08:30ean, klubeko bajeratik.

**ETXARRI ARANATZ Aralarko Mendigoizale Egunera joateko ibilaldia antolatu du Larrañeta mendi taldeak.**  
09:00etan, elkartetik.

**ALTSASU Paradox magic**

**ikusbizuna emanen du Pedro III. magoak.**  
17:00etan, lortia kultur gunean.

**ALTSASU Selfie filmaren emanaldia.**  
17:30ean eta 19:40ean, lortia kultur gunean.

**ALTSASU Ile-apaindegi eta makillaje tailerra.**  
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

**OLATZAGUTIA Laminatutur etorriko da haurren Olentzerorendako gutunak jasotzera.**  
18:00etan, Akelarre ludotekan.

**LAKUNTZA Iñigo Cabacas. Crónica de una herida abierta dokumentala.**  
18:30ean, kultur etxean.

**IRURTZUN La zanja antzezlanaren aurkeztuko du Caminos para crecer kulturarteko antzerki taldeak.**  
19:00etan, kultur etxean.

**ETXARRI ARANATZ Disney forever kontzertua emanen du Etxarri Aranzako abesbatzak, koral txikiaren laguntzaz.**  
19:00etan, elizan.

**ALTSASU La librería filmaren emanaldia.**  
19:30ean, lortia kultur gunean.

**ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa.**  
20:00etan, Foru plazan.

## ASTEARTEA 19

**ALTSASU Miren Gorrotxategi idazlearekin 33 ezkil eleberriri buruzko literatur-hizketaldia.**  
09:30ean, lortia kultur gunean.



**URDIAIN Aitziber Urdiaingo gazteria.**  
Aitziber elkartearen 50 urteei buruzko erakusketa.  
**Abenduaren 17tik** ibeltzaren 6ra arte elkartearen ikusgai.

**ALTSASU Aragoako Pirinioko OLATZAGUTIA Jaiotzen erakusketa.** Sakanako belenzaleen elkarteak San Sebastian ermitan eta bere egoitzan jarri ditu jaiotzak ikusgai.  
**Ilbeltzaren 7ra arte, astelehenetik larunbatera, 18:00etatik 20:00etara eta domeketan 13:00etatik 14:00etara eta 17:30etik 20:30era.**



**POTT ETA... 2017 Denboraren soinuak.** Juan Barriolaren Nafarroako frontoien argazki zaharren gaineko interbentzioak egin ditu Patxi Aldunatek.  
**Abenduaren 6tik 31ra arte** astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 17:30etik 21:00etara, lortia kultur gunean.

**ALTSASU Aragoako Pirinioko despopulazioari buruzko Piedras con alma argazki liburua aurkeztuko du Bakartxo Aniz Aldasorok.**  
19:00etan, lortia kultur gunean.

## ASTEAZKENA 20

**IRURTZUN Musika eskolaren eguberri kontzertua.**  
18:00etan, kultur etxean.

## OSTEGUNA 21

**IRURTZUN Pontxa eta piratak kontakizuna egingen du Jaione Urtasun ipuin-kontalariak.**  
17:00etan, liburutegian.

**ARBIZU Ipuinen hiria** haurrendako ikuskizuna eskainiko dut Izaskun Mujika ipuin kontalari ihabardarrak.  
18:00etan, liburutegian.

**ALTSASU Asesinato en el Orient Express filmaren emanaldia.**  
19:00etan, lortia kultur gunean.

EGURALDIA  
ASTEBURUAN

Ostirala, 15



Larunbata, 16



Igandea, 17



Astelehena, 18



ESKELA

**Patxi Barandiaran Lopez de Munain**

Olaztin, abenduaren 2a

Zure hutsunea handia izango da zaindaririk gabe Belengo borda oroitzapenean zure irrifarra bertatik pasatako bakoitzean.

Agur eta ohore, Patxi.

Ibai eta Aritzen lagunak

ESKELA

**Patxi Barandiaran Lopez de Munain**

Agur eta ohore, Patxi.

Besarkada handi eta estu bat familia osoari

Hesian familiaren partez

ESKELA

**Patxi Barandiaran Lopez de Munain**

Sekula ezin izango digute nahi ez duguna pentsarazi. Zuek pentsatzen, sentitzen, maitatzen duzuen bitartean, ni libre izango naiz.

Olaztiko 56ko kintoak

ESKELA

**Patxi Barandiaran Lopez de Munain**

Batuekoko zure lagunak

Olazti

ESKELA

**Patxi Barandiaran Lopez de Munain**

Olaztin, 2017ko abenduaren 2a

Gure aita eta senarraren galeran, zuen babesa eta berotasuna eskeini diguzuen guztioi, gure bihotz-bihotzezko eskerririk handiena.

Olga, Ibai, Aritz eta Maider

ESKELA

**Patxi Barandiaran Lopez de Munain**

Olaztin, abenduaren 2an

Eskerririk asko garena izateko bidean laguntzeagatik. Eskerririk asko guztiagatik. Maite zaitugu aita.



ESKELA

**Jose M<sup>a</sup> Artola**

Aitona



Soilik ahazten dena hilda dago

Etxekoak

URTEURRENA

**Rafael Lacunza Castejon**

I. Urteurrena

Arbizu

URTEURRENA

**Eusebio Lazkoz Razkin**

VI. Urteurrena

Gure ondotik joan zinen, baina ez gure bihotzetik. Beti jarraituko duzu gurekin. Maite zaitugu.

Emaztea, seme-alabak eta bilobak



40 tanatorios  
**IRACHE**  
aniversario

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

"Betidanik"

☎ 948 19 70 70  
 🐦 @Grupolrache  
 📘 Grupolrache  
 🖱 www.tanatoriosirache.es



Haize Berriak banda, Erkudengo Ama abesbatza eta Los del Rayo asteartean entseatzeko.

## ALTSASU

Los del Rayo, Haize Berriak banda eta Erkudengo Ama abesbatzak jotzeko eta abesteko modu desberdinak dituzte. Batzuen gitarrak eta baxuak, besteen haize instrumentuak eta beste-lakoak eta abesbatzaren ahots ugaritasunak bat egin dute *Los del Rayo sinfonikoa* kontzertu bikoitzerako. Hirurek nork bere publikoa duela aitortuta ere, elkarrekin aritzeak publiko desberdina erakarriko du emanaldira eta Los del Rayo, Haize Berriak banda eta Erkudengo Ama abesbatza ezagutu dituzte.

Rock taldeko gitarrak, Peio eta Leo, bandaren Queenen omenezko emanaldietan parte hartu zuten 2013ko abenduan eta 2014ko ilbeltzean. "Emanaldi haien ondoren, erdi txantxetan erdi serio, noizbait elkarrekin zerbait egiteko aukera aipatu zuten. Pixkanaka ontzen joan zen eta "kontu serio baten mustutzearen bezperan gaude jada", azaldu digu Juankar Aguilera, Los del Rayoko abeslariak.

Haize Berriak bandako kide den Gotzon Urritzolak aitortu digunez, "guri musika desberdinak batzea gustatzen zaigu. Haize Berriak bandak gauza desberdinak egin ditu. Entzuleei ezustekoak ematea gustatzen zaigu. Zuzendariak banda-kideok ere harritzen gaitu". Urritzolak esan digu Altsasuko rock taldeen artean esanguratsuenetako bat dela Los del Rayo. Sakanako egile askoren obra bandarako

# Sinfonia-rock altsasuarra

Los del Rayok, Haize Berriak bandak eta Erkudengo Ama abesbatzak kontzertua emanen dute bihar 19:30ean eta 21:30ean, Iortia kultur gunean. Lehen emanaldirako sarrerak salduta daude eta bigarrenarako gelditzen dira

ere egokitu du. Baina estreina-koa da rock talde baten lana bandarako egokitzen dutena.

Erkudengo Ama abesbatzako zuzendari Inma Arroyok esan digunez, Los del Rayo taldeko kide bat jo zuen proposamenarekin haiengana: "*Sakana mai-tia* emanaldian entzun gintuen. Ideia taldean aspaldi omen zutela eta gurekin eta bandarekin zerbait egin nahiko luketela".

## Prozesua

Proiektu honekin duela bi urte hasi zirela azaldu digu Urritzolak. Bai abesbatza, bai banda,

**"KANTU AKUSTIKO EDO MELODIKOA IZAN ZITEKEENAK AUKERATU DITUGU, ZAHAR ETA BERRI"**

bai rock taldea "bakarka kantak prestatzen sei bat hilabete dararamagu. Duela hilabete hasi gara entsegu orokorrak egiten, guztia ontzeko" esan digu Aguilera. Los del Rayoren kantak izanik haiendako "errazago" izan dela aitortu digu abeslariak, "nahiz eta batzuetan moldaketak egin ditugun. Baina, bai, lan gogorra bandarena eta abesbatzarena izan da".

Hiru musika erakundeak kontzertuan izanda eszenan 75 bat pertsona izanen dira. Bandarendako eta abesbatzarendako hori ez da arrotza. "Ongi moldatu gara" dio Urritzolak. Iortia kultur gunean elkartu dira entseatzeko. "Guretako nahikoa ikusgarriak izaten ari dira entseguak. Rock and rollera ohituta, zure burua banda batekin, zuzendari batekin, abesbatza batekin ikustean, hasieran errespetua

sortzen zigun. Integratu gara" dio Aguilera.

## Entzunen denaz

Ibilbide luzea du Los del Rayok eta kantu sorta ere halakoa da. Aguilera emanaldirako aukeraketa nola egin duten azaldu digu: "kantu indartsuagoak eta erritmo ertainekoak ditugunez, akustikoa edo melodikoa izan zitekeena aukeratu dugu, bai disko zaharretakoak nola berrikoak". Urritzolak azaldu digu taldeak proposatu zituela, hiruen artean adostu eta aurrera egin dute.

**"OSO ONGI GELDITZEN DA ROCK ABESLARIAREN AHOTSA ABESBATZAREKIN"**

Los del Rayo taldearen kanten moldaketak eta partiturak egin behar izan dituzte. "Hori profesionalak egiten dute". Oraingoan Jesus Mari Beltza eta Alberto Gonzalez Urrotz arduratu dira moldaketez. Partiturak "aspaldi" jaso zituztela esan digu Arroyok eta "guretako zailenak direnekin hasi ginen, errazagoak zirenak azkenerako utziz".

Biharko emanaldirako honako piezak eskainiko dituzte: *Sangre en la pared*, *El guardián de tus errores*, *Preso en tus besos*, *No te puedo olvidar*, *Inocente pubertad* eta *Quiero decirte*. "Jende gehienak ezagutuko ditu. Taldearen ibilbideko ikurrak dira" esan digu Urritzolak.

## Emitzarekin pozik

"Lana da, zaila da". Nekea bai, baina hiru musika taldeetako kideak "gozatzen, oso ongi pasatzen" ari direla esan digu Urritzolak, "elkarrekin gauza majo bat ateratzen zaigula ikusten dugulako". Emanaldirako "ilusio ikaragarria dutela jakinarazi digu Arroyok. Bandako kideak jakinarazi digunez, hiru musika eragileek kontzertuan zehar "luzitzeko" tarreak izanen dituzte. Jakina, Los del Rayorendako dira "une gorenak".

Sonoritateaz galdetuta, abesbatzako zuzendariak esan digu "arraroa, bada ere, oso gauza ederra" dela. "Desberdina da. Los del Rayoren betiko kantak, bandaren parte sinfonikoarekin eta koralarekin. Emaizta bitxia, interesantea eta entzuteko guztiz ederra da". Urritzolak gaineratu duenez, "oso ongi gelditzen da rock abeslariaren ahotsa eta abesbatza biltzen direnean". Eta Juankarrek pentsa du "jendea pozik joanen dela, emaitza ikusgarria delako".

## Los del Rayo

Altsasuko auziaren inguruko *La gran mentira* kantua grabatu du berriki taldeak. "Altsasurendako opari bat da. Familia horiek laguntzeko". Altsasuko Gurasoak saltzen ari dira haren kopiak. Kantu hori ere entzunen da biharko emanaldietan. Aguilera jakinarazi digunez, azken hilabeteetan kontzertua prestatzen ari dira. Haiek pasa eta gero entsegu lokalean entseatzeko segituko dute. Dagoeneko bospasei kantu berri dituzte. Datarik ez, baina diskoa argitaratzea dute buruan.



UTZITAKOA

## Sormenaren lurraldean

Asko izan dira Durangora gerturatu diren sakandarrak. Urtetik urtera euren sortzaile sakandarrak gero eta gehiago dira. Batzuk estreinakoa zuten, esaterako, auto-edizio gunean egon ziren Iker Uribe eta Iñaki Berastegi. Eskarmentu gehiago dute Gozategiko, Hesian edota Vendetta kideak edo Juankar Lopez Mugertza eta Alberto Barandiaran idazleak besteak beste.



ARTXIBOA

## Tarima beltzari aitortza

Nafarroako Amateur Antzerki Federazioak bere urteroko gala ospatu zuen Iruñean abenduaren 2an. Fede sariak banatu zituzten. Tarima Beltzak hamar urte bete zituelako saritua izan zen. Altsasuarrek ezin izan zuten saria jaso, egun horretan Valladoliden zeudelako, azkeneko "Falstaff no cree en la otra vida" antzezlanaren jokatzeko.

## Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala Beleixe Irratian

17. Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala Barakaldoko BEC eraikinean jokatu da igandean. Zortzi bertsolari neurtuko dira: Aitor Mendiluze, Aitor Sarriegi, Amets Arzallus, Beñat Gaztelumendi, Igor Elortza, Maialen Lujanbio, Sustrai Colina eta Unai Agirre. 14.600 lagunek jarraituko dute finala bertatik bertara.

Eta txartela eskuratu ezin izan dutenak Beleixe Irratiarekin sintonizatzeko aukera izanen dute igande goizean, 11:00etatik aurrera, eta arratsaldean, 16:30etik aurrera. Izan ere, finala osorik FMren 107,3 dialean entzungai izanen da, edo, bestela, [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus) bidez entzuteko aukera izanen da. Sakanako irrati eskaldunak, Beleixe Irratiak, Info 7 irratiarekin bat eginen du emanaldia eskaintzeko. Hala egin zuen ere lastailaren 14an, Eneko Lazkoz Martinez bertsolari etxarriarrak Tolosako final-laurdenekoan aritu zenean.

## Hasiberriak eta eskarmentua dutenak gaztetxean

Intxostiapunta gazte guneak gaurko antolatutako kontzertuak eguraldi iragarpenagatik tokiz aldatu behar izan du, Foru plazatik gaztetxeko aterpera; 23:00etan izanen da. Jaialdian bi talde ariko dira. Lehena, etxekoa, Atzapar Rock. Seikotea honakoek osatzen dute: Ander Goikoetxeak (bateria), Aitzol Gaintzarainek (tronpeta), Ekhi Erauskinek (gitarra), Sarabe Begiristainek (abeslaria) eta Asier Solisek (gitarra). Bertsioak eta euren kantak joko dituzte.

Nekez taldea Iruñeritik heldu den laukote bat da: Eder Gonzalez (gitarra, ahotsak), Ander Arlegi Izko (baxua, ahotsak), Jon Ziriza Murugarren (bateria) eta Joseba Urtasun Ripalda (ahots nagusia). Duela bi urte Altsasuko Itxura estudioetan Lokatzetako Igela diskoa grabatu zuten. 40 emanalditan aurkeztu dute euren lan hori eta bira despeditzeko Altsasu aukeratu dute. Musika estilo sendo eta metale- roa eskainiko dute gaurkoan.

## Argi Bidea gazte elkartearen logotipo lehiaketa deitu du



Arbizuko Argi Bidea gazte elkarteak 50 urte beteko ditu 2018an. Hura behar bezala prestatzeko lanean hasiak dira dagoeneko. Baina "ekimen guztiei txapela jartzeko logotipo bat" sortu nahi dute. Horregatik, Arbizuko Gazte Asanbladak (AGA) lehiaketa antolatu du eta hura osatzeko irizpideak eman ditu: *bost hamarkada*, *milaka taupada* leloa izatea; elementuei dagokienez, bihotz organikoa eta 50 urte irudika ditzakeen sinboloa eta, azkenik, irudimena. Lanak aurkezteko epea abenduaren 22ra arte dago zabalik. Esker ona adierazteko, AGAtik jakinarazi dute parte-hartzaile guztiek "saria" jasoko dutela.



## BAZTERRETIK

RICARDO ARETA URRESTARATZU

## Dickensen Gabonetako ipuina



Hortxe dago Mikel, bere bulegoan, begirada galduta. Iritsi naizenik ere ez da ohartu. Durangorako ez dugu gauza handirik aurkeztu, erretako bildumaren bat bizi irauteko eta ea diskoetxeari pixka bat eusten dion jubilatua ahal izateko.

Data hauetan, aurreko urteko Gabonetako mamua iristen da eta etekin guztia diskoetxearentzat eta musikariarentzat deus uzten

ez duten milaka diskoen salmentaren oroimenean murgiltzen da.

Musika taldeak %3a kobratuko lukeen kontratua, beti ere 5.000 kopia baino gehiago saltzen bazituen, bestela deus ez. Edo taldeak lehen 3.000 kopia erostera derrigortua zegoeneko. Baita taldeak bere gain hartzen zituen diskoak ere, diskoetxeak bere estudioan grabatzeagatik kobratzen

zuela, grabaketa orduaren prezio izugarri garestia zelarik. Diskoa dendara iritsi baino lehen, dirua kutxan sartzen hasten zen, negozioa grabaketa berea baitzen, diskoaren salmentak ez zuten axola. Diskoetxeek hedabideen giltza zuten.

Egungo Gabonetako izpiritua eskuan daramat. Mugikorra. Teknologia dena aldatu du. Etxean, ia doan grabatu daiteke, emaitza onak lortuz. Ehundaka kanal birtual eta sare sozialek, musikaria milioika pertsonarengana denbora laburrean hurbiltzen dute eta kanal hauen bitartez entzuleek kontaktu zuzena dute musikariarekin. Diskoa ez da negozioa, musikariei zuzeneko kontzertuetarako atea irekiko dien bisita txartela baizik, hori baita musikarien lekua, errepidea.

Batek daki etorkizuneko Gabonek zer ekarriko duten...



Irurtzunen jokatu den antzezlano une bat. UTZITAKOIA

## Ilusiotik eta esperientziatik sortutako antzezlana

CEAR-Euskadiko antzerki taldeak "La zanja" jokatu dute igandean, 19:00etan, Irurtzuno kultur etxean

### IRURTZUN

Euskadiko Errefuxiatuei Laguntzeko Batzordean, CEAR-Euskadi, partaidetza sozialeko taldea dute. Han sortu zen *Caminamos para crecer* kulturarteko antzerki taldea 2015ean. CEARren zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsona errefuxiatuak eta batzordeko boluntarioek bat egin zuten antzerki taldean. Euren iritziz "jendarte inklusiboa eta solidariora eraikitzeko funtsezkoa da pertsonalki haztea". Eta horretarako antzerkia tresna gisa aukeratu zuten, "gure potentzialari bulkada eman, erabateko askatasunez adierazten uzten ez diguten gure blokeoak, beldurak, lotsak eta bestelakoak opatu eta lantzeko. Urte beteko lana eta entsegu gogorren ondoren, 2016ko garagarrilean, *La zanja* antzezlana aurkeztu zuten Bilbon, "hunkitu eta zirrara sortzeko asmoz".

Bikote bat da protagonista. Mariak eta Ousmannek bikote bixia osatzen dute. Maria, agian, pixka bat desorekatua dago. Ousmanne, seguruenik, etsia. Biek *Gau Itzarriaren* sakonean murgilduko gaituzte, errealtateen, esperientzien, testigantzen telebista saioan hain zuzen ere. Eta eszena-tokia telebista plato bihurtzen denean, bertan Pertsona errealekin eta beraien istorio errealekin bidaia egingo dugu. Egiaz betetako pertsonak, euren egia kontatuko dizkigutenak. Mundua deseroso egon arazten duen egia.

**CEAR-EUSKADIKO ERABILTZAILEAK ETA BOLUNTARIOAK DIRA ANTZEZLANEKO AKTOREAK**

## Gorrotxategiren liburua literatur hizketaldirako

Asteartean, 09:30ean, Altsasuko Iortia kultur gunean "33 ezkil" liburuaz hizketatuko dira

### SAKANA

Miren Gorrotxategi idazlea asteartean Altsasun izanen da, Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak, AEK-ko Itsasi euskaltegiak eta Sakanako Mintzakidek gonbidatuta. Idazle azpeitiarrak joan den urtean *33 ezkil* (Elkar) liburua argitaratu zuen eta astearteko hitzordura joaten direnek hura irakurrita joatea komeni da, haren inguruko literatur-hizketaldia izanen delako 09:30etik aurrera Altsasuko Iortia kultur gunean.

Gorrotxategiren aurreneko eleberraren abiapuntua aurkikuntza bat da: Garizmendi baserriko Ferminek, aitzurrean ari dela, burezur bat topatu du lurperatuta. Berehala kalean bizi den Nestor semeari jakinaraziko dio, baita hark Berta andregai ohi arkeologoari ere; hilotz hori ateratzera doazenean baina, desagertua da eskeletoa. Hortik aurrera, berriz, hildako gehiago, eta misterioa gero eta ilunago. Hildako zahar eta berriak, anaien arteko gorrotoak, belaunaldien arteko arrakalak, bikote barruko konpondu ezinak, droga, jokia... Osagai horiek eta gehiago topatuko dituzu eleberrri beltz honetan.

## Erkudengo Ama abesbatza eguberri kantatuko die

Gaur izanen da, 20:30ean, Altsasuko elizan. Haurren bi abesbatzekin ariko da

### ALTSASU

Erkudengo Ama abesbatzak ohikoa duen eguberri kontzertua eskainiko du gaur, 20:30ean, elizan. Emanaldi horretan lagunduta ariko dira Inma Arroyok zuzentzen dituen abeslariak. Alde batetik, Udal Musika eta Dantza Eskolako eta Sagrado Corazón ikastetxeko abesbatzak ariko dira. Haiekin batera Hodei Alegre perkusio-jolea ere ariko da. Guztien artean eguberri giroko kantuak kantatuko dituzte, sakroak batzuk herrikoiak besteak (Euskal Herria, Espainia eta Tanzaniakoak).

Asteburu betea dute Erkudengo Ama abesbatzakoek, bihar *Los del Rayo sinfonikoa* emanaldian parte hartzen dutelako rock taldearekin eta Haize Berriak bandarekin. Urtean zehar hainbat emanaldirekin batera ohiko trukaketak egin dituzte. Eta grabatu ere, abesbatzak grabatu du. Davide Cabaleirok *Sitio distinto* dokumentala irailean 17an mustu zuen Bilbon. Euskal Herrira migratutako galiziarren inguruko lana da. Damián Peña Steffenek sortu zuen soinu banda eta haren zati bat Erkudengo Ama abesbatzak kantatu du. Grabazioa martxoaren 2an egin zen Iortia kultur gunean.

## Etxarriko abesbatzaren Disney kanten aukeraketa

Igandean, 19:00etan, elizan "Disney forever" kontzertua emanen dute helduek eta haurrek

### ETXARRI ARANATZ

Walt Disney zinema estudioek hainbat film eman dituzte beraien ibilbide luzean. Eta haietako soinu bandari erreparatu dio Etxarri Aranazko abesbatzak eguberriko kontzertua prestatzeko. *Disney betirako* izenburupean kontzertua emanen du abesbatzak etzi. Baina ez dira bakarrik ariko, helduekin batera harrobia ere ariko baita: Etxarri Aranazko abesbatza txikia.

Etxarriarrek igandeko emanaldirako honako filmetatik aukeratu dituzte kantak: *Moana (Vaiana)*, *Frozen*, *Pocahontas*, *El rey león*, *La sirenita*, *Aladdin*, *El libro de la selva*, *Mary Poppins*, *Dumbo*, *Blancanieves* eta *Cenicienta*. Animazio filmeen berezitasunak Alicia Armendariz zuzendariari jokia eman dio. Hala emanaldiaren zati batean helduen abesbatzaren ardura izanen da eta bestea haurrena. Batzuk eta besteak pianoaren laguntza izanen dute zenbait piezetan. Bestetik, helduak bakarlariekin ariko dira ere. Horiek bakarrik ere kantatuko dute. Baita emakumezkoak eta gizonetzkoak banatuta ere. Despedida, hori bai, guztiek elkarrekin emanen dute.

## Album ilustratu bat sortzeko tailerra

Abenduak 29 (ostirala) 17:00-19:00  
Iortia kultur gunea

6-10 urte bitarteko haurrendako (LH1-4)  
Izen-ematea Iortia kultur gunean abenduaren 26a arte  
(948 564272 iortia@altsasu.net)

Tailergileak: Yolanda Arrieta eta Aitziber Alonso



Antolatzailea: Sakanako Mankomunitatea  
Laguntzailea: Altsasuko Udala

# “Txapelketa nagusian egin nuena baino hobeto egin dezaket bertsoan”

Nafarroako txapeldunorde izan ondoren, Bertsolari Txapelketa Nagusian parte hartu du lehen aldiz Eneko Lazkoz bertsolari etxarriarrak. Final laurdenetan sartu zen txapelketa nagusian eta Tolosan jokaturako zuen lehen kanporaketan agur esan zion txapelketari. Berriz ere parte hartu eta beste aho zapore batekin amaitzea gustatuko litzaioke.

**Iñaki Berastegi.** ETXARRI ARANATZ

## 1 Nolako izan da zure lehen parte hartzea Txapelketa Nagusian?

Nahi baino gutxiago iraun dut. Oso zaila da Euskal Herriko Txapelketa Nagusian faseak gainditzea. Esperantza pixka bat banuen, baina nahi baino okerrago egin nuen bertsoan eta nahi baino puntu gutxiago jaso nituen. Txapelketa egun berean hasi eta bukatu zen niretako.

## 2 Emaitzari begira, zapore gazi gozoa utzi dizu txapelketa honek?

Bai. Egindako gauza batzuekin gustura geratu nintzen, baina, saioa, orokorrean, ez nuen nahi bezain ona egin. Ahal izango banu, egun horretara bueltatuko nintzateke eta saioa hobeto egitea gustatuko litzaidake.

## 3 Txapelketa Nagusian lehenengo parte hartzea izan dela kontuan hartuta, urduritasuna nabaritu zenuen?

Kanporaketaren egunean lasai joan nintzen, oso ongi sentitzen nintzen. Saioa ongi hasi nuen, baina, gero, zortziko txikiko bi-

garren ariketako gaia ez nuen ondo harrapatu, eta beste bertsolariaren bertsoak uste ez nuen tokitik joan ziren. Oso ariketa txarra egin nuen, eta horrek asko eragin zidan hurrengo ariketetan.

## 4 Txapelketak eta bertso saioak prestatzeko moduari dagokionez, 2017 urte desberdina izan da zuretako?

Urteekin ikusi dut Nafarroan nahiko goran egon nintekeela eta Euskal Herriko txapelketan egin nuena baino gehiago egin nezakeela. Horretarako bidea bertsoan disfrutatzea da, disfrutatzen ari zarenean ongi egiten ari zarelako baita.

## 5 Nafarroako Txapelketan txapeldunorde bukatu ondoren, prestaketa bereziren bat egin zenuen txapelketa nagusiari begira?

Prestaketan baino, denbora gehiago eman dut prestaketa nola egin pentsatzen. Asmoa banuen etxean errimak eta barkarkako jarduna lantzeko. Zerbait landu nuen, baina uste dut gehiago egin nezakeela. Txapel-

keta iritsi ahala, kontzientzia garbia ez izatearen sentsazioa sortu zitzaidan.

## 6 Txapelketa Nagusian nahi bezain saio ona egin ez zenuen arren, txapelketara konfiantzarekin iristen zinela esan daiteke?

Bai, eta bertsoan oso gustura ari nintzen gainera. Baina, azkenean, egun bakarrean jokatzen den zerbait da, eta batzuetan dena ongi ateratzen zaizu eta beste batzuetan iruditzen zaizu bertso bat egiten ere ez dakizula. Arrazoi desberdinengatik ez zitzaidan egun egokia suertatu.

## 7 Lehendabiziko esperientzia hau hartuta, hurrengo txapelketetan hobeto aritzeko, non hobetu behar duzula ikusten duzu?

Horrelako txapelketetan norberaren burua ezagutzen ikasten da, hurrengo baterako burua hobeto kontrolatzen, alegia. Oraindik, saio hari bueltak ematen nabil.

## 8 Orain, bideari berriro heltzea tokatzen da, lau urte barru be-



Eneko Lazkoz Martinez bertsolaria. IÑAKI

## 9 rriro ere txapelketa nagusian aritu ahal izateko.

Bardoen taldekako txapelketa izanen dugu Nafarroan laster, eta horren ostean Nafarroako txapelketa nagusia iritsiko da berriro ere. Lau urte barru Nafarroako bost bertsolari onenak txapelketa nagusira joanen dira. Gustatuko litzaidake berriro ere lehenengo parte hartzean ikasitakoa praktikan jarri eta beste aho zapore batekin bukatzea.

## 9 Dena den, aipatu izan duzu, txapelketetan baino gehiago, mahai inguruko bertso saioetan erosoago sentitzen zarela.

Bai, oso gauza desberdinak direlako. Txapelketetan, gaia jartzen dizute, bertso pare bat bota eta agian ordu erdi ematen duzu eserita abestu gabe. Beste erritmo bat izaten dute mahai inguruko saioek, eta momentu batean

bertsoan nahiko ongi aritzea lortu ohi da.

## 10 Nafarroari erreparatuta, zer nolako maila dago?

Duela hamar hamabost urtetik hona mailak dezente gora egin du. Aurpegi berriak agertu dira, ni neu ez naiz oso gaztea, baina finaletan eta nahiko berandu hasi nintzen. Hala ere, normalean azken urteetako finalean zortzitik sei beti errepikatzen dira.

## 11 Igandera begira jarrita, nola ikusten duzu finala?

Nik uste dut denek Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus ditugula buruan. Maialen Lujanbio oso bertsolari ona da eta txapela irabazi dezakeela uste dut. Amets Arzallus ez dugu aurten txapelketan entzun, baina ziur nago ongi egingo duela, gaizki egiten ez dakielako.

EGIN AMETSAK EGI

BULEGOKO MATERIALA

ESKUORRIAK

KARTELAK

PEGATINAK

PUBLIZITATEA

ALDIZKARIAK